


**ALEMANEZKO PERPAUS ERLATIBOEN
EUSKARATZEA ETA GAZTELANIARATZEA:
DER BEWAFFNETE FREUND OBRAREN ANALISI
SINTAKTIKO ETA SEMANTIKOA**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

Ikaslea: Jon Aldabe Erdozain (jaldabe001@ikasle.ehu.eus)

Gradua: Itzulpengintza eta Interpretazioa

Ikasturtea: 2018/2019

Tutorea: Naroa Zubillaga Gomez

Saila: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa

LABURPENA

Gradu Amaierako lan honetan, *Der bewaffnete Freund* obra alemanaren euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenak baliatu ditugu perpaus erlatiboen baitako azterketa sintaktiko eta semantikoa burutzeko. Itzultzaile berak, Edorta Mataukok, bi xede-hizkuntza ezberdinetan erlatibazioaren inguruan nola jokatu duen ikusteko baliabide interesgarria da Raul Zelik-en eleberria. Hala, alderdi teorikoan, hizkuntza bakoitzaren erlatibakuntzak dituen ezaugarri eta forma ezberdinak ikusi ditugu, baita orain arte erlatibakuntzaren inguruan egin diren ikerlanak ezagutu ere. Jarraian, alemanezko perpaus erlatibo atributibo eta jarraituak abiapuntu izan dituen azterketa sintaktiko-semantikoan, ikusi dugu guk hautaturiko corpusean euskaraz erlatibatzeke joera baxuagoa izan dela gaztelaniaz baino (% 71,2 vs. 89,9), eta, halere, ohiko karga erlatiboa duela, betiere erlatiboen itzulpenen inguruan egindako bestelako lanekin alderatuta (Sancho, 2015). Bestalde, argi ikusi dugu euskarazko ordain ez-erlatiboen artean parataxia gailendu dela, jatorrizko perpaus erlatibo asko, alborakuntzaren bidez gehienbat, menderakuntzaren mailatik esaldi independenteen mailara pasa dituelako. Gaztelaniaz, ordea, erlatibakuntzaren ezabaketa oso ohikoa izan ez den arren (% 10,1), sinplifikatzea izan da ordain ez-erlatiboetan gailendu den teknika, perpaus erlatiboa ISaren mailara pasatu delako maiz. Sintaxiari dagokion datu esanguratsua da itzultzaileak ZEIN/NON erlatiboekiko ezkortasuna izan duela oro har, ez baititu maiz erabili, eta erlatibo aposatuen erabilera ohikoa baino altuagoa izan dela, zeina ezaugarri estilistikoa den, hortaz. Erlatibo aposatuak erabiltzeko hautua, noski, JTko ez-murrizgarriak itzultzeko estrategia da, ondorioztatu baitugu gramatikari batzuk esaten dutenaren aurka, -N erlatibo arruntetik eta erlatibo jokatuabeetatik abiatutako perpaus aposatuak erlatibo ez-murrizgarriak sortzeko baliabidea direla; hortaz, ZEIN/NON/BAIT- erlatiboak ez dira perpaus ez-murrizgarri edo esplikatioak emateko modu bakarra. Ildo beretik, ikusi da, aditu batzuek esaten dutenaren aurka, -N erlatibo arruntek ere balio ez-murrizgarria izan dezaketela izen ardatzaren ezkerrean agertuagatik. Analisi semantikoa baliagarria izan da ikusteko irizpide sintaktiko-formala ez dela, ezein hizkuntzatan, murrizgarri/ez-murrizgarri bereizketaren inguruan azken hitza duena, testuinguru komunikatiboa eta izen ardatzaren tasuna, baizik. Tesi horrek corpus eta azterketa luze eta sakonagoa behar duen arren, eta azterketa semantikoa egiteko metodologia sistematiko eta zorrotzagoa behar duen arren, hautatutako jatorrizko testuaren itzulpen bikoitza aztertzeko balio izan du, eta beste lanetarako ere erabil liteke.

AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA.....	8
2. MARKO TEORIKOA.....	9
2.1. Erlatibakuntzaren inguruko azalpena.....	9
2.1.1. Perpauk erlatiboak alemanezko gramatikan.....	9
2.1.1.1. Perpauk erlatibo arruntak (<i>Relativsätze</i>).....	9
2.1.1.2. Perpauk erlatibo askeak (<i>freie Relativsätze</i>).....	9
2.1.1.3. Perpauk erlatibo jarraituak (<i>weiterführende Relativsätze</i>).....	10
2.1.1.4. Alemanezko perpauk erlatiboen bereizketa semantikoa.....	10
2.1.2. Perpauk erlatiboak gaztelaniazko gramatikan.....	13
2.1.2.1. Gaztelaniazko perpauk erlatiboen bereizketa semantikoa.....	13
2.1.3. Perpauk erlatiboak euskarazko gramatikan.....	16
2.1.3.1. Euskarazko perpauk erlatiboen bereizketa sintaktikoa.....	16
2.1.3.1.1. -N erlatibo arruntak.....	16
2.1.3.1.1.1. -N erlatibo aposatuak.....	16
2.1.3.1.2. ZEIN/NON erlatiboak.....	17
2.1.3.1.3. BAIT- erlatiboak.....	19
2.1.3.1.4. Erlatibo jokatuak.....	19
2.1.3.1.5. Bestelako perpauk erlatiboak.....	21
2.1.3.2. Euskarazko perpauk erlatiboen bereizketa semantikoa.....	21
2.2. Perpauk erlatiboak itzulpena.....	23
2.2.1. Biguri: Erdarazko erlatiboak itzulpenaz (1994).....	23
2.2.2. Sancho: Errusierazko perpauk erlatiboak euskaratzea (2015).....	23
2.2.3. Biguri: Perpauk erlatiboak esplikatuak euskaratik gaztelaniara eginiko literatura-itzulpenetan (2016).....	24
2.3. Marko teorikoaren ondorioak.....	26
3. OBRA, IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA.....	28
4. PROZESUA ETA METODOLOGIA.....	29
4.1. Aztergaia zehaztu.....	29
4.2. Aztergaitik corpusera.....	29
4.2.1. Corpusetik azterketa sintaktikora.....	29
4.2.1.1. Alemanezko perpauk erlatiboak izendapenak.....	29
4.2.1.2. Euskarazko ordainen izendapenak.....	30

4.2.1.3.	Gaztelaniazko ordainen izendapena	32
4.2.2.	Corpusetik azterketa semantikora	33
4.2.2.1.	Jatorri-hizkuntza: alemana.....	34
4.2.2.2.	Xede-hizkuntza: euskara eta gaztelania.....	34
5.	AZTERKETA SINAKTIKO ETA SEMANTIKOAREN EMAITZAK.....	35
5.1.	Azterketa sintaktikoa: erlatibakuntza	35
5.2.	Azterketa sintaktikoa: erlatibakuntza-eza	38
5.2.1.	Euskarazko ordain ez-erlatiboak.....	40
5.2.2.	Gaztelaniazko ordain ez-erlatiboak	42
5.3.	Azterketa semantikoa	45
5.3.1.	Ez-murrizgarrien euskararako itzulpena.....	48
5.3.2.	Anbiguotasuna	49
6.	ONDORIOAK.....	51
	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	54
I.	ERANSKINA: AZTERKETA SINAKTIKO ETA SEMANTIKOA	55

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1 Esaldi atributibo pronominalizatu baten adibidea (DE)	30
Taula 2 -N erlatibo arrunt ezberdin baten adibidea (EUS)	30
Taula 3 -N erlatibo aposatu baten adibidea (EUS)	31
Taula 4 -N erlatibodun aposizio baten adibidea (EUS)	31
Taula 5 -N erlatibo aposatu gibeleratu baten adibidea (EUS)	31
Taula 6 Erlatibo jokatu gabe aposatu baten adibidea (EUS)	31
Taula 7 Izen ardatza isildua duen erlatibo jokatu gabe baten adibidea (EUS)	32
Taula 8 Erlatibo jokatu gabe baten adibidea (ES)	33
Taula 9 Perpaus pronominalizatu baten adibidea (ES)	33
Taula 10 Erlatibakuntza sorburu- eta xede-hizkuntzetan	35
Taula 11 Euskarazko ordain erlatiboak	36
Taula 12 Euskarazko ordain erlatiboak izen ardatzarekiko	36
Taula 13 Erlatibakuntza-eza sorburu- eta xede-hizkuntzetan	38
Taula 14 Alemanaren eta gaztelaniaren antzekotasuna izenordainetan	39
Taula 15 Ordain ez-erlatiboak euskaraz	40
Taula 16 Euskarazko alborakuntzaren adibidea	41
Taula 17 Euskarazko marra luzeen adibidea	41
Taula 18 Euskarazko marra luzeen lerradura gaztelaniara	42
Taula 19 Euskarazko sinplifikatzearen adibidea	42
Taula 20 Ordain ez-erlatiboak gaztelaniaz	43
Taula 21 Preposizio sintagmaren bidezko sinplifikatzea (ES)	43
Taula 22 Euskaraz ordain erlatiboa eta gaztelaniaz ordain ez-erlatiboa	44
Taula 23 Sinplifikatzearen lerradura gaztelaniara	44
Taula 24 Ez-murrizgarrien eta murrizgarrien itzulpena	45
Taula 25 Modulazioaren adibidea	46
Taula 26 E. E. M. --> E. M. eraldaketaren adibidea	46
Taula 27 Komarik ez duten PE ez-murrizgarrien adibideak (ES)	47
Taula 28 -N erlatibo arrunt ez-murrizgarri baten adibidea	47
Taula 29 PE ez-murrizgarritik alborakuntzara	48
Taula 30 Ez-murrizgarriak ez-murrizgarriekin itzultzean erabilitako PEak (EUS)	48
Taula 31 -N erlatibo aposatuen eta erlatibo jokatu gabe aposatuen bidezko PE ez- murrizgarriak	49
Taula 32 Jatorrizko PE anbiguen itzulpena	50
Taula 33 PE anbiguen itzulpena: XHetan PEa murrizgarri bihurtzea	50
Taula 34 PE anbiguen itzulpena: ordain ez-erlatiboa (eus) eta erlatibo ez-murrizgarria (es)	50

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1 Erlatibakuntza sorburu- eta xede-hizkuntzetan	35
Grafikoa 2 Ordain erlatiboak euskaraz.....	38

LABURDURAK

B. A.	Bukaerako atala
E. A.	Erdiko atala
EGLU	Euskal Gramatika: Lehen Urratsak
H. A.	Hasierako atala
JT	Jatorri-testua
SH	Sorburu-hizkuntza
PE	Perpaus erlatiboa
XH	Xede-hizkuntza
XT	Xede-testua

1. SARRERA

Erlatibakuntza, esan gabe doa, era askotan azter daitekeen hizkuntza-aspektua da, eta, are gehiago, itzulpengintzan. Euskarazko erlatibakuntzak sortu izan duen eztabaidagatik, aberasgarria iruditu zaigu corpus txiki bat sortzea, bertan erlatibakuntzaren inguruan itzultzaileak zer jarrera hartu zuen jakiteko. Raul Zeliken *Der bewaffnete Freund*, gainera, ikuspuntu traduktologiko batetik oso interesgarria izan daiteke, itzultzaile berak, Edorta Mataukok, hartu zuelako euskaratzeko eta gaztelaniaratzeko ardura, zeinak bi xede-hizkuntzen arteko erkaketa xehea egitea ahalbidetzen duen. Itzultzaile berak bi hizkuntzataraz itzuli duen eleberri aleman baten azterketa sintaktikoak, jakina da, hamaika portutara eraman gaitzake: izan ere, jatorri-testuko perpaus erlatiboak (hemendik aurrera, PE) nola itzuli diren aztertzeaz gain, xede-testuetako erlatibakuntzan jar daitekeelako arreta, hau da, xede-erlatiboak jatorrizko zer egiturengatik ordezkatu diren azter daitekeelako. Gainera, erlatibakuntzaren baitako aspektu semantikoa, hots, perpaus erlatiboen izaera murrizgarri eta ez-murrizgarriaren arteko ezberdintasuna itzulpenetan nola planteatzen den aztertzea ere emankorra izan daiteke ondorio sintaktiko, traduktologiko eta estilistikoak ateratzeko asmoz. Haatik, lan honetarako, alemanezko perpaus atributiboak eta jarraituak jarri ditugu ikerketaren abiapuntutzat, horien itzulpen-prozesuan zer gertatu den jakiteko.

Lehenik eta behin, marko teorikoan, hizkuntza bakoitzaren erlatibakuntzaren inguruko azalpena eskainiko dugu alde batetik; gramatikek eta adituek PEen ezaugarrien eta sailkapen sintaktiko eta semantikoaren inguruan emandako azalpenak erreparatuko ditugu, hortaz. Beste alde batetik, erlatiboen itzulpenaren harira egindako ikerlanak ikusiko ditugu gainetik, Sancho eta Biguriren lanak, hain zuzen. Bigarrenik, lan honetan burutu dugun azterketa sintaktiko eta semantikoaren nondik norakoak azalduko ditugu metodologian, eranskin gisa eskuragarri dagoen analisirako erabilitako izendapenak argitzearekin batera. Hirugarrenik, JTaren, idazlearen eta itzultzailearen inguruko informazio apur bat eskainiko dugu. Laugarrenik, azterketan behaturikoa eta lorturiko emaitza esanguratsuenak aurkeztuko ditugu xehe-xehe eta, bukatzeko, lanaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu azken atalean.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Erlatibakuntzaren inguruko azalpena

Erlatibakuntza informazioa txertatzeko prozedura sintaktiko oso erabilia eta emankorra da, eta hemen ikusiko dugu, labur, hizkuntza bakoitzeko gramatika-adituek esandakoa.

2.1.1. **Perpaus erlatiboak alemanezko gramatikan**

Perpaus erlatiboak mendeko perpausak dira, eta menderagailuek perpaus nagusiko elementu aurrekariari (*Bezugselement*) egiten diote erreferentzia. Perpaus erlatiboak sortzeko erlatibatzaile ezberdinak ditu alemanak: izenordainak, zeinak genero eta numeroaren arabera aldatzen diren, eta adberbioak, zeinak aldaezinak diren. Alemanaren ezaugarri bereizgarria hau da: izen ardatzaren ostean kokatzen da beti erlatiboa, koma baten ostean. Oso ohikoa da izenordainen aurretik preposizioak gehitzea leku, denbora eta era guztietako nozioak gehitzeko (hurrengo adibide honetan, *aus* leku-preposizioa): *Das ist das Buch, aus dem ich diese Information entnommen habe.*

2.1.1.1. **Perpaus erlatibo arruntak (*Relativsätze*)**

Engelek (1994: 218) erlatibo arruntei *Relativsätze zum Nomen* izen eman zien, hau da, *izenarekiko erlatibo* izena. Pittner eta Bermanek, ordea, (2007: 103) *perpaus erlatibo atributibo* (*attributive Relativsätze*) izena eman zieten, elementu nominatibo bati erreferentzia egiten dioten erlatiboak direlako eta izenondoak ordezkari ditzaketelako. Atributibo horien buruan *d*-izenordainak (*der, die, das* eta horietatik sorturikoak), *w*-aditzondoak (*wo, wann, wie*) eta *w*-izenordainak (*welcher, welche* eta *welches* modukoak) izan ditzakegu (Pittner eta Berman 2007: 103). Batzuetan, gainera, hirugarren horiek beharrezkoak dira hoskidetasuna saihestearren: *Das, das mir Kummer macht → das, was mir Kummer macht* (Engel 2004: 158).

2.1.1.2. **Perpaus erlatibo askeak (*freie Relativsätze*)**

Erreferente espliziturik gabeko perpaus erlatiboak dira (Eroms 2000: 297). *W*-izenordainak (*Wes Brot ich ess, des Lied ich sing*) edo *d*-izenordainak (*der/wer lachen kann, hat mehr vom Leben*) hartzen dituzte. Halere, erreferente inpersonal bat ere har dezakete,

hura murrizteko asmoz: *derjenige, der lachen kann, hat mehr vom Leben* (Pittner eta Berman 2007: 103-104).

2.1.1.3. Perpaus erlatibo jarraituak (*weiterführende Relativsätze*)

Izenak dioen bezala, nolabaiteko jarraipena egiten duten perpaus erlatiboak dira, Castellek *oraciones no complementarias* gisa izendatzen dituenak (2008). Engelek erlatibo jarraitu hauei *aditzarekiko erlatibo (Relativsätze zum Verb)* izena jarri zien (1994: 219). Ez dute inolako erreferente nominalik, erreferentea edo ardatza esaldi osoa baita; ez dute, hortaz, perpaus nagusiko (*Obersatz*) elementu bakan bat zehazten edota azaltzen, zirkunstantzia berri bat gehitzen dute, ordea. Izenordain guztiak *w*-izenordainak dira: *Regina trank schnell, was ungewöhnlich war*. Halako esaldiek erakusten digute erreferenteak ez direla beti izen sintagmak. Eskuarki, halakoek perpaus nagusiaren ondoren egon behar dute, baina perpaus nagusiaren aurretik ere ager daitezke: *Was ungewöhnlich war: Regina trank schneller als er* (Engel 1994: 221).

2.1.1.4. Alemanezko perpaus erlatiboen bereizketa semantikoa

Alemanez ere beste hizkuntzetan egiten den bereizketa semantikoa egiten da, murrizgarri eta ez-murrizgarrien artekoa, alegia. Engelek honela bereizi zituen (2004: 159): *restriktive Relativsätze* direnak beharrezko eta ezinbesteko aurrebaldintza dira esaldiaren zentzu osorako, eta *nichtrestriktive Relativsätze* izena dutenek, ordea, ez dute tasun edo informazio nahitaezkorik gehitzen (*unser Hund, der ein ganz braver Kerl ist, würde nie einen Briefträger beißen*). Eromsek ere bereizketa semantikoa egin zuen (2000: 289-295), baina murrizgarrientzat *restriktiv* hitza erabili zuen eta, ez-murrizgarrientzat, *appositiv* hitza. Termino horiek erabiltzen dituzte Institut für Deutsche Sprache-koek ere (1997, III: 2009-2015). Noski, beste hizkuntzetan argia (edo argiagoa) den bereizketa lausoagoa da alemanez; ikusi dugun bezala, erlatibo guztiek, izenordainak eta preposizioak gora-behera, egitura bera eta ortografia bera dute.

Pittner eta Bermanek (2007) bien arteko ezberdintasuna intonazioan dagoela esan zuten, idazkeran egon beharrean. Murrizgarriak esaldi matrizearen (*Matrixsatz*) barruan integratzen dira inolako geldiuenerik gabe; ez-murrizgarrietan, ordea, izen ardatzean intonazioa igotzen da, eta ondoren isilune bat egiten da erlatibo ez-murrizgarritik bereizteko.

Bestalde, perpaus erlatibo murrizgarri bat markatzeko, artikulua mugatua indar daiteke ahoskeraren bidez; hala, murrizgarriek daukaten integrazio-efektu hori handitu egiten da artikuluan enfasia jarriz (IDS 1997, III: 2007). Halere, artikulua ez da murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko bereizketa egiteko irizpide sintaktiko egokia, erlatiboak murrizgarriak ere izan daitezkeelako artikulua zehaztugabearekin edota inolako artikulurik gabe, jarraian gertatzen den bezala (Eroms 2000: 294):

Der Hund, der den Briefträger gebissen hat, gehört eingesperrt.

Hunde, die bellen, beißen nicht.

Ein Hund, der bellt, beißt nicht.

Desberdintasun kategoriko hori ez da hain argia izen berezien kasuan (IDS III: 2008): *Ich meine Karin, die immer die Haxe gegessen hat.* Kasu horretan argi dago esplikatioa edo ez-murrizgarria dela; jarraian datorren honekin, ordea, ezberdina da: *Ich meine die Karin, die immer die Haxe gegessen hat.* Karin izeneko emakume askoren artean batez ari garela argi uzteko gehitzen da artikulua mugatua, eta, hortaz, beharrezkoa da erlatibo baten bidez esanahia murriztea eta aurrekaria identifikatzea. Horren berdina da honakoa: *Ich meine die Frau, die immer die Haxe gegessen hat.*

Halere, alemanez, esaldi bakarrak bi interpretazio ezberdin izan ditzake maiz (Engel 2004: 158): *Mein Onkel, der aus Chile kam, war ein erfolgreicher Agraringenieur.* Esaldi horretan hizlariak osaba bakarra duela uler dezakegu edo osaba guztien hartan txiletarra den osaba hartaz ari dela. Halere, testuinguru bakoitzean zer esaldi motaz ari den jakitea posible omen da Engelen ustez, irizpide zehatzak daudelako biak ezberdintzeko (2004: 159): murrizgarrien kasuan, oro har, beharrezkoak izanik izen ardatza mugatu, zehaztu edo identifikatzeko, *jenig* elementua gehi geniezaieke haien izenordainari: *Derjenige Onkel, der aus Chile kam,...* Ez-murrizgarriak beti dira hautazkoak edo aukerakoak eta, hortaz, *existimatorische Ausdrücke* deritzon osagarriak izan ditzakete (*übrigens, ja, wie man weiß..*) eta ezin zaie *jenig* elementua gehitu: *Mein Onkel, der übrigens aus Chile kam,...* Eromsen ustez, *restriktiv* eta *appositiv* horien bereizketarako garrantzitsua dena zera da, erlatiboak nagusiki determinatzaileak edo kalifikatzaileak diren ezberdintzea (2000: 293). Erreferenteak diren elementuak maiz semantikoki *orokorrak* edo *kategorikoak* dira (*Mensch, Mann, Erfahrungen*, adibidez) eta gero perpaus erlatibo murrizgarriek murrizten dute haien

espazio semantikoa. Izen propioek (eskuarki bakarrik, ikusi dugun moduan), izenordain pertsonalek eta jada murriztuta dauden izen ardatzek (*ihre Eltern*, esaterako) esplikatibotasuna eskatzen dute (Eroms 2000: 294).

Haatik, Institut für Deutsche Sprachekoek esaldi anbiguenen pragmatikaren inguruko ondorio garrantzitsua eskaintzen dute (1997, III: 2015): testuingurua ez da beti baliagarria bereizketa egiteko. Hots, perpaus erlatibo batzuen izaera semantikoa zein den jakitea ez da beti posible (*dann geben wir der Katze, die uns ständig anmiaute, etwas zu fressen*), balitekeelako egoera horrekin topo egin izana deus gehiago jakin gabe (*wir betraten die Wohnung. Dann gaben wie der Katze,...*). Hortaz, testuak katu bakarra edo gehiago zeudela esplizitatu badu, murrizgarri moduan edo ez-murrizgarri moduan uler daiteke, testuinguruak esandako katu kopuruaren arabera. Ez bada esplizitatu, ordea, irakurtzeko eta ulertzeko bi erak onar daitezke.

2.1.2. Perpaus erlatiboak gaztelaniazko gramatikan

Gaztelaniazko perpaus erlatiboak honelaxe definitzen ditu Real Academia Españolak (2009, II: 3291): «*se denominan oraciones subordinadas de relativo las encabezadas por un pronombre, adverbio o determinante relativo, o bien por los grupos sintácticos que estas voces forman*». Perpaus erlatiboen ezaugarria haien izaera modifikatzailea da, eta aurrekaria izen sintagma bat izan ohi den arren, toki hori izenordainek, adberbio pronominaiek eta esaldi osoek ere har dezakete. Dena dela, aurrekariaren eta erlatiboaren arteko erlazioa sustantiboaren eta haren adjektibo modifikatzailearen artekoaren berdina da. Erlatibatzaileen artean *que*, *quien* eta *cuanto* izenordain erlatiboak, *cual* [zeinak artikulua hartzen dituen (*el cual*)], *cuyo* edutezko determinatzailea, eta *donde*, *como*, *cuanto* eta *cuando* adberbioak ditugu. Gaztelaniaren erlatibakuntzak eskaintzen duen baliabide aberatsenatarikoa preposizioen erabilera da: *Hay ciertos organismos a los cuales no podemos acceder*.

2.1.2.1. Gaztelaniazko perpaus erlatiboen bereizketa semantikoa

Alemanez bezalaxe, gaztelaniaz ere bereizten dira izen ardatza modifikatzeko bi moduak. RAEren hitzetan (2009: 3295), perpaus erlatiboak aurrekaria modifikatzen bada, espezifikatiboa (*especificativa*) da: *Los documentos que se salvaron del incendio serán fundamentales en el juicio*. Determinatzaileak (*determinativas*), atributiboak (*atributivas*) ere deituriko horiek izen sintagmaren denotazioa zehazten dute, eta, aurrekaria pluralean doanean, haren izaera murrizten dute (Biguri 2015: 69). Bestalde, erlatiboa aposizioan doan adjuntua bada, esplikatiboa (*explicativa*) dela dio RAEk: *Los documentos, que se salvaron del incendio, serán fundamentales en el juicio*. Aposatuak (*apositiva*) edo intzidentalak (*incidentales*) ere deituriko erlatibo horiek izen ardatzaren inguruko informazio osagarria gehitzen dute, beharrezkoa ez dena perpaus nagusiaren edukia ulertzeko.

Biak bereizteko, ezaugarri formal bereizgarriak ditugu. Lehenik, aspektu prosodikoan zentratuz, alemanezkoak bezalaxe, murrizgarriak ez dira egitura independente bat, intonazioari dagokionez esaldi nagusian txertatzen diren esaldiak, baizik. Murrizgarrien aurretik ez da ez isilunerik ez tonu-inflexiorik egiten. Hargatik, PEak ez dira puntuazio-zeinuen bidez bereizten esaldi nagusitik. Ez-murrizgarriek, ordea, talde foniko propioa eratzen dute, haien parentesi-izaerari jarraiki. Bereizgarritasun prosodiko hori idazkeran islatzen da, aurrekaria eta mendeko perpausak puntuazio-marken bidez bereizten direlako.

Bereizketa hori gehienetan koma bidez egin ohi da, baina puntua, puntu eta koma, bi puntuak, gidoiak, parentesiak edo kortxeteak ere erabil daitezke. Halere, badira komarik gabe agertzen diren erlatibo esplikatiboak. Aleták (1990: 157) aipatzen digun adibideak (*En la calle sólo había un crío que jugaba a la pelota*) erakusten digu irizpide ortografikoak ez duela beti funtzionatzen, interpretazio murrizgarria izan dezakeelako, baina baita ez-murrizgarri edo esplikatiboa ere, koma ez izanagatik; baliteke haur bakarria egotea kalean eta, gainera, pilotarekin jolasean ibiltzea. «Por esta razón, no nos parece apropiado utilizar la pausa como único criterio para caracterizar una cláusula relativa» (ibid.).

Bigarrenik, aspektu sintaktiko-semantikoan zentratuz (RAE 2009: 3320-3321), modifika dezaketen segmentuaren araberakoa izan daiteke bereizketa:

Klausula espezifikatiboek izen sintagmak baino ezin dituzte modifikatu, eta esplikatiboek, aldiz, ISak ez ezik, baita beste edozein kategoria gramatikal ere, eta horregatik ezin zaio erlatibo murrizgarri bat atxiki izen propio bati, zeren berauek, definizioz, erreferentea identifikatzeko funtzioa duten osagai zehaztaileak baitira (Biguri 2015: 70).

Alemanez bezala, badira, hala ere, salbuespenak, izen propioak artikulua hartzen duenetan erlatibo espezifikatiboa gehi daitekeelako: *La Pamplona que conocemos no tolera agresiones machistas*.

Gainera, alemanez *weiterführende Relativsätze* izenez ezagutzen direnek eta gaztelaniaz ere existitzen direnek beti dute izaera esplikatiboa, eta halako izena hartu dute hortaz: *explicativas oracionales o continuativas* (Ramírez in Biguri 2015: 71). Gaztelaniaren kasuan *que* izenordaina edo *lo que/lo cual* konposatuak har ditzakete: *Beatriz vino pronto, lo que me alegró enormemente*.

Aipagarria iruditzen zaigu Bigurik bere lanean ikusi zuen adostasun falta terminologiari dagokionez (Biguri 2016: 74). Adostasun falta ez dago izendapenari lotuta bakarrik (RAEk berak erabiltzen dituen hitz ezberdinak kasu), baita erlatiboen semantikaren araberako sailkapenari buruz ere, autore batzuek sailkapen dual eta sistematiko hori kritikatzeko baitute eta beste sailkapen batzuk proposatu. Bi mota horien bereizketa baino, lau *izaera* bereizgarri kontuan hartzea proposatu zuen: batetik, aldaera espezifikatibo eta esplikatiboak eta, bestetik, murrizgarri eta ez-murrizgarriak. Izaera horiek konbinatuz, honako erlatibo ezberdinak sor ditzakete (1990: 162-163):

- (1) Espezifikatibo murrizgarria: *Había un crío que jugaba a la pelota*. Hainbat ume daude, eta horietako bat ari da pilotan.
- (2) Espezifikatibo ez-murrizgarria: *Había un crío que jugaba a la pelota*. Ume bakarra dago, eta pilotan ari da.
- (3) Esplikatibo murrizgarria: *Hoy en día un crío, que disponga de dinero, claro está, se recorre el mundo*. Erlatiboak izen ardatzaren multzoa murrizten duelako da murrizgarria, baina aldi berean horren inguruko azalpen identifikatzaile bat ere gehitzen du; hortaz, esplikatibotzat ere har daiteke.
- (4) Esplikatibo ez-murrizgarria: *Un crío, que tiene toda la vida por delante, no tiene por qué preocuparse de esas cosas*. Ez da beharrezkoa izen ardatza murriztea, singularra erabili arren haur guztiez ari delako, azpimultzorik egon gabe. IS horren inguruan informazioa txertatzen da erlatiboaren bidez, hau da, haur guztiek dutela oraindik bizitza guztia bizitzear.

Gure analisirako ezinbestekoa da jakitea erlatibakuntzaren teoriak eskaintzen duen azalpen sistematiko hori testuinguruak eta egoera komunikatiboak baldintzatzen dutela, eta dikotomia hori ez dela maiz gero pragmatikan hala izaten, ez baita beti argia bi moten arteko aldea: «el *contexto* y la *situación* son dos elementos esenciales para que el oyente logre la adecuada interpretación de la construcción relativa que emite el hablante (Aletá 1990: 156-157)». Teorizatzaileen eta adituen hausnarketa eta iritzi ezberdinak ikusita, gure analisi deskribatzaileko sailkapen dikotomiko tradizionala erabiltzea erabaki dugu, sailkapen xeheago bat egiteak suposatzen duen zailtasun eta lan-karga nabarmenagatik alde batetik, eta, sailkapen xehea (Aletáren lau erlatiboak) aplikatzen saiatuz izan ditzakegun intepretazio-akatsak alde batera utzita, koherentzia ahalik eta gehien mantenduko dugulako.

2.1.3. Perpaus erlatiboak euskarazko gramatikan

Euskaltzaindiak, EGLU-V lanean esaten du perpaus erlatiboak «funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak direla, izenlagunen moduan agertzen ohi direnak» (1999: 173). Perpaus menderatu horien ezaugarria da «barnean badutela izen sintagma bat, erlatiboa osagai gisa hartzen duen izen sintagmaren erreferentzia duena». Perpaus erlatibo baten bidez lotzen diren bi esaldiak parataxitik abiatzen direla diosku EGLU-Vek, bi esaldietako izenek «erreferentzia bera dutelako» (ibid).

2.1.3.1. Euskarazko perpaus erlatiboen bereizketa sintaktikoa

Jakina da erlatibakuntzak forma asko dituela euskaraz, eta itzulpen-analisi konparatibo baten baitan beharrezkoa dela sailkapenaren zantzu orokorrak kontuan hartzea.

2.1.3.1.1. -N erlatibo arruntak

-N menderagailuaren bidez sortzen diren perpaus erlatiboak *perpaus erlatibo arrunt* izena ematen diete EGLUk eta SEGek. Halaber, perpaus erlatiboen berezitasuna da «menderagailuak nahitaez azken tokian agertu behar duela, eta, beraz, adizkera jokatu beti hondarrean behar dutela» (1999: 178).

Izen ardatzaren izaerari dagokionez, EGLU-Vek dio izen arruntak, izen bereziak eta izenordain mugagabeak izan daitezkeela perpaus erlatiboa beregain har dezaketenak (1999: 197). Haatik, -N erlatiboa izen bereziei lotzearen inguruan eztabaida dago. Garziak dio (1997: 396) ez dela egokia beste elementurik gabe agertzen den izen propioaren aurretik jartzea (*euskararen alde hainbeste lan egin zuen Mitxelenari omenaldia egingo diote bihar bere herrian*), sustantibo edo adjektibo bat erabili ezean (*euskararen alde hainbeste lan egin zuen Luis Mitxelena euskalakari gogoratuari*).

EGLU-Vek, bestalde, -N erlatiboen erlatibagarritasunaren inguruko azalpen xehea eskaintzen du, izen ardatzak duen kasu gramatikalaren arabera delako perpaus erlatiboa txertatzeko ahalmena, eta badirelako kasuen arteko konbinaketa zehatzetan sor ezin edo zentzurik ez duten egiturak. Muga sintaktikoak ditu, hortaz, -N erlatiboak.

2.1.3.1.1.1. -N erlatibo aposatuak

Aparteko azpimultzo batean sartu ditugu -N menderatzailearekin sortutako perpaus erlatiboak baina aposizio bidez izenaren ardatzaren eskuinean kokatzen direnak. Sancho

(2015) *erlatibo aposatu* gisa izendatzen ditu, eta Bigurik (2016) *aposiziozko erlatibo* gisa. EGLU-Vek bi erlatibo aposatu mota ezberdintzen ditu: *alboko aposizio arrunta* eta *aposiziozko perpaus erlatibo gibeleratua*. Honakoa dio bi horien inguruan: «aposizioan diren sintagmek ez ohi dute ageriko ardatzik, baina aurretik aipatua den izen sintagma bati buruz zuzenduak dira eta alde horretatik aurretik kanpoko ardatza badutela esan daiteke» (1999: 213). Aposizioan doan perpaus erlatiboaren eta kanpoko izen ardatzaren artean komuntadura mantentzen da, bestelako aposizioekin egiten den bezala. Garrantzi handia dute askotan erabiltzen direlako:

Haur ingeles hura, egunero etxera bazkaltzera etortzen zena, oso jatorra zen.

Alboko aposizio arrunt (1) eta aposiziozko perpaus erlatibo gibeleratuen (2) arteko aldea honakoa da: lehenengo kasuan, erlatiboa izen ardatzaren ostean txertatzen da, eta, bigarren kasuan, izen ardatzaren eta mendeko perpausaren artean perpaus nagusiaren aditza egon ohi da (Sancho 2015: 133):

(1) *Hortxe dator neskatila, gurekin Berlinen egon zena.*

(2) *Zerbait ikusi genuen, oso itxura txarra zuena.*

Gibeleratuek absolutiboan edo partitiboan agertu behar dute, eta ezin dute, hortaz, ergatiboan, datiboan edo inesiboan izan (EGLU-V 1999: 215), eta okertzat ematen ditu honakoak: *Gizon batek hitz egin zidan ongi ezagutzen duzunak.*

EGLU-Vek aipatzen duen bezala, kasu batzuetan zaila denez erlatibo aposatuak erabiltzea, erresuntiboak, hau da, izenordainak (*harekin*) erabiltzeko joera handiagoa izaten da:

Sacramentu onen bidez barkatu zizun bekatu jatorrizko, edo originala, [guziok arekin jayotzen geranal (Aguirre Asteasukoa, Eracusaldiac 1, 193 in EGLU-V 1999: 216)

2.1.3.1.2. ZEIN/NON erlatiboak

Zein izenordainaren eta *non* adberbioaren bidez sorturikoak dira. EGLU-Vek *ZEIN-erlatibo* gisa izendatzen dituen horiek perpaus posposatuen multzoan sartzen ditu (1999: 174). EGLU-Ven azalpenak diosku *zein* eta *non* galdera-izenordainak izenordain erlatibo gisa baliatzen direla eta perpaus erlatiboaren hasieran agertzen direla (ibid.). *Zein* izenordainak zenbaki-paradigma mugatua (*zeina, zeinak,...*) nahiz mugagabea (*zein,*

zeinek,...) izan dezake, eta *non* adberbioak lekuzko adiera ez ezik, denborazkoa ere eduki dezake (SEG). Halaber, mendeko perpaus hauek *bait-* edo *-(e)n* menderagailua edo biak batera ditzaketela dio EGLU-Vek (1999: 221). Mendebaldeko euskalkietan *-(e)N* erabiltzen ei da bakarrik, eta *bait-* aurizkia, berriz, ekialdekoetan; «hegoaldeko nafarreran bi menderagailuak» erabili izan dira (ibid.). Oso baliabide aberatsa da edozein kasutan ager daitekeelako, partitiboan salbu, eta *ZEIN* erlatiboak elkarrekin lotuz «perpaus erlatiboan metaketa ahalbidetzen duelako» (SEG). Hauxe da erlatibo mota honen adibide bat:

Urdazubiko baserritarrek, zeinek iruzurraren ondorioz diru asko galdu baitzuten, auzitegian deklaratuko dute bihar.

ZEIN erlatiboan sorreraren inguruan honakoa dio EGLU-Vek:

Aunitzek diote, eta itxurak hala dio, perpaus erlatibo horiek erdal eredu bati jarraiki moldatu dituela euskarak, hizkuntza idatzian eta hizkuntza jasoan baliatzeko bereziki. Hala izanik ere, esan daiteke aspaldi beretu izan dutela euskal idazleek erabide hau, euskalki guztietako testu idatzietan aurkitzen baita (1999: 219).

Aitortzen du, gainera, «tradizio luze-luzea duten arren euskal literaturan», XX. mendearen hasieran gramatikari gehienek okertzat jo zituztela «ondoko erdarek baliatzen duten eredu bati jarraitzen zaizkiolakoan» (1999: 174). SEGek ere aitortzen du «garbizalalekeriaren garbizalekeriaz gaitzetsiriko erlatibo mota bat» dela eta euskal prosaren sortzaile diren Leizarraga, Axular eta beste idazle klasikoentzat «baliabide txit erabilgarria» zela. Gainera, honakoa defendatzen du: «perpaus luzeetarako askoz egoki eta eraginkorragoa da *-N* baino, zeren *-N* erlatiboak, izen ardatzaren ezkerrean txertatzen den aldetik, ez baitu onartzen bere baitan osagarri ugari biltzerik». Nahiz *ZEIN* erlatiboan aurkako borroka horren ostean «gaur egungo idazle eta itzultzaileek aurreiritzi hori gainditu ez duten» (SEG), Villasantek aipatu zuen itzulpengintzan *zein* erlatibatzailea hautatzeko beharra hautematen dela, eta, *astunak* eta *arraroak* izan daitezkeen arren eta lagunarteko ahozkoan erabiltzen ez diren arren, hizkuntza idatzirako erabilgarriak direla (1976: 88).

2.1.3.1.3. BAIT- erlatiboak

Bait- menderagailuaren bidez sorturikoak dira, tradizioz ekialdeko euskalkietakoa omen dira (SEG; Sancho 2015: 148), eta oso erabilgarria da «-n-rekin ez bezala, kasu guztiak eta postposizio itsatsi guztiak direlako erlatibagarri eta izenordain edo adberbio erresuntiboen erabilera zilegi delako bait- erlatiboetan» (SEG). Honakoa da ematen den adibide ohikoa:

Bakotxak badauka eskuan liburu ttipi bat, hartan kondu guziak eginak baitire aitzinetik asti edo jakitaterik ez dutenendako. (J. Etchepare, *Buruchkak*, 172 in SEG)

Bait- menderagailua darabilten kausazko mendeko perpausekin nahas daitezke erlatiboak, bien arteko marra «oso fina» baita (Sancho 2015: 149). Hala, *gizonak, nekatuak baitzetozen, etxean sartu ziren* (Villasante in SEG) esaldian *bait-* aurrizkiak «ez du adiera garbirik, menderagailu hutsa da, zergatizko gisa uler daitekeena edo erlatibo ez-murrizgarri gisa» (SEG). Anbiguotasun hori Sanchok ere ikusi zuen bere adibideetan (2016: 151):

Gure corpusean BAIT- aurrizkiarekin osatutako perpaus gehien-gehienak interpreta daitezke kausazko bezala, baina STan denak erlatiboak direnez, aipagarriak eta erlatibo aposatuen artean sartzeko modukoak iruditu zaizkigu BAIT- aurrizkiaren bidez osatutako erlatiboak direla hobetsiz, beraien balizko kausazko izaeraren kaltetan.

Guk ere halaxe egin dugu gure corpusean.

2.1.3.1.4. Erlatibo jokatuabeak

Aditz forma jokatuabeak dituzten erlatiboek hainbat ezaugarri orokor dituzte (Sancho 2015: 123): ez dute *-N* menderagailua hartzen, izen ardatzaren ezkerretara zein eskuinetara agertzen dira, ezinezkoa da *ez* partikularen bidezko ezezko perpausik sortzea, eta partizipio burututik abiatzen direnez, aspektu mugatua dute. Hiru mota identifikatu ditugu guk: erlatibo jokatuabe arruntak, erlatibo jokatuabe aposatuak eta izen ardatza isildua dutenak.

- Erlatibo jokatuabe arruntak

SEGek honako azpi-sailkapena egin zuen:

- (1) **Lehenaldiko erlatibo baiezkoak:** mendebaldeko eta erdialdeko euskalkietan partzipio adberbialari (*ta/da, (r)ik, (r)ika*) –ko atzizki eratorlea gehitzen zaie eta, ekialdeko euskalkietan, ordea, partzipio hutsa edo partzipio adjektibalaren bidez osatzen dira. *Zuk egindako lana / Zuk egin lana*
- (2) **Lehenaldiko erlatibo ezezkoak:** [Partzipio hutsa + GABE postposizio librea + -KO atzizki eratorlea] egitura jarraitzen dute. *Itsasotik itzuli gabeko arrantzaleak.*
- (3) **Aditz-izenaren eta –ko atzizkiaren bidez sortzen direnak.** *Egunero egiteko lanak aspergarriak dira.*
- (4) **Aditz modalari –ko atzizkia gehitzen zaienak.** *Zein da eskaerari erantsi beharreko dokumentazioa?*

- **Erlatibo jokatuabe aposatuak**

Gure corpusean oso maiz identifikatu ditugu, eta aurrekoen berdinak diren arren, erlatiboa izen ardatzaren ostera pasatzen da. Bi azpi-mota daudela ondorioztatu dugu:

- (1) **Partzipio burutua + -ko egitura dutenak:** *Fraga, Francoren pean barne ministro izandakoa, erabakigarria izan da normalizazio demokratiko deiturikoan.* (Zelik 2007: 61)
- (2) **Partzipio burutu hutsarekin osaturikoak:** *haur abestien CD bat jarri dut, Hannak aste batzuk lehenago autoan ahaztua* (Raul Zelik 2007: 61).

- **Izen ardatza isildua duten jokatuabeak**

SEGEk dio «-N erlatibo motarekin gertatzen den bezalaxe, erlatibo jokatuabeetan ere gerta daitekeela izen ardatza ez agertzea», izen ardatzaren errepikapena saihesteko (1) edota izen ardatz jakinik ez dagoelako (2):

- (1) Zuk egin duzun lana txalogarria da, baina Mikelek egindakoa ere ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.
- (2) Txalogarria da zuk euskararen alde egindakoa.

2.1.3.1.5. Bestelako perpaus erlatiboak

Euskarazko erlatibakuntzak baditu bestelako erlatiboak ere: **korrelaziozko PEak** (*Nor ere bizi baita etxe hartan, hark pagatu beharko du haren konponketa.*), **aurrekaririk gabeko galde-izenordaina duten PEak** (*ez dut norengana jo*) **eta aurrekaria perpaus oso bat duten PEak** (*goiz etorri da, zeina ez baita ohikoa*). Ez ditugu lehendabiziko biak gure corpusean topatu; bai, ordea, azkena. Alemanezko *weiterführende Relativsätze* deiturikoak izango lirateke, eta, euskaraz, Sanchok dioenez (2015: 154), «ZEIN eta BAIT- erlatiboekin erraz osatzen dira aurreko esaldi bat erreferentziatzen daukaten perpausak». Onartzen du erlatibo arrunt aposatuekin osa daitezkeela, baina askorentzat ez direla oso onargarriak: *Mikel berandu etorri da, niretzat arazo bat ez dena*. Halaber, «ardatzaren ezkerretarako erlatibo arrunt batekin ematea, aldiz, ia ezinezkoa da» (Sancho 2015: 154).

2.1.3.2. Euskarazko perpaus erlatiboen bereizketa semantikoa

Ondoko hizkuntzetan egiten den bereizketa semantikoaren inguruan ez daude aditu guztiak ados. Bigurik (2016: 86) dioskunez, Villasante, Mitxelena, Arejita eta Goenagak murrizgarri eta ez-murrizgarrien arteko bereizketa semantikoa eta formala egiten dute, -N erlatiboak espezifikotzat eta ZEIN/NON/BAIT- erlatiboak esplikatibotzat hartzen baitituzte. SEGek ere dio ZEIN erlatiboek ez dutela izen ardatza mugatzen edo zehazten: haren gaineko argibide gehigarrien bat ematen dutela, ordea. Haatik, De Rijk eta Oyharçabal dira «klausula murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko diferentzia sintaktikorik» ez dagoela esaten dutenak, «izen ardatzaren nolakoaren arabera bakarrik bereiz baitaitezke», eta, ondorioz, «ardatza izen propioa, izenordain pertsonala edo erreferentzia bakarreko izen arruntak badira, erlatiboak ez murrizgarriak baino ezin dira izan» (2016: 86).

EGLU-Ven arabera «erlatiboaren balio murrizgarriak eta ez-murrizgarriak topa daitezke erlatibo arrunt edo -N erlatiboan bezala, baita ZEIN/NON erlatiboan ere» eta «euskaraz formak edo sintaxiak ez dituzte bi erlatibo mota horiek bereizten, zentzuak eta izen ardatzaren erreferentzia mugatu edo ez mugatuak baizik» (in Biguri 2016: 98). Gainera, semantikaren ikuspuntutik ezberdinak izan daitezkeen lau perpaus mota eskaintzen ditu (1999: 200-201): murrizgarri mugagarria (1), ez-murrizgarri ez-mugagarria (2), murrizgarri ez-mugagarria (3) eta bi interpretazio eskaintzen dituen, hau da, murrizgarria eta ez-murrizgarria izan daitezkeena (4).

(1) *Goizean etxe aurrean zurekin mintzatu den gizonak esango zizun hori.*

Kasu horretan, gizon guztien artean batez ari delako da murrizgarria, eta ergatibo singularraren kasu-markak mugatzen, determinatzen duelako da mugagarria.

(2) *Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak esango dizu hori.*

(2) adibidearen izen ardatza izen berezi bat da, eta izen berezi horren izaeraren eta *nire arrebak* aposizioaren bitartez, ezin da ez murriztu ez mugagarri bilakatu.

(3) *Etorri ziren aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk.*

Goiko (3) horren izen ardatza *batzuk* determinatzaileak egiten du mugagabe, ez baitakigu zenbat lagunez ari den zehazki, edota nortzuk diren. Haatik, «perpaus erlatiboak *lagun batzuk* sintagmaren erreferentzia zerbait itxuratzen du eta, beraz, murrizten du», *aspaldi ezagutzen zituenak* baitira eta ez beste *batzuk*. Baina izen sintagma ez da guztiz mugatu, mugagabetasuna ematen diolako aipatu determinatzaileak.

(4) *Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak irakurri behar nituzke.*

EGLU-Ven ustez, (4) bi modutara uler daiteke. Euskal liburu zaharrez ari bada oro har, eta haien artean ez badu bereizketarik egiten, perpaus erlatiboak ez du ez balio murrizgarririk ez mugagarririk. Aitzitik, «hiztunak irakurtzeko dituen obrak, ez euskal liburuak orokorrean, baizik ere solaskideak ongi ezagutzen dituenak» badira, perpausak balio murrizgarri eta mugagarria du, *liburu konkretu horiek* baitira mintzagaia.

2.2. Perpaus erlatiboen itzulpena

Alemana-euskara norabide linguistikoan egindako ikerketa sintaktikoak ugariak ez direnez, eta zehazki perpaus erlatiboen inguruko azterketa sakonik ez dagoenez, beste corpus edo azterketetara jo behar izan dugu beste hizkuntzetako perpaus erlatiboak euskarara itzultzerako orduan zer joera izan den ikusteko eta ondorioz garrantzitsuenak hemen laburtzeko.

2.2.1. Biguri: Erdarazko erlatiboen itzulpenaz (1994)¹

Bigurik bost obra biltzen zituen corpusaren analisi ez-kuantitatiboa egin zuen, hau da, jatorrizko erlatiboak itzultzeko joera eta teknika ezberdinak zerrendatu zituen. Lan xehe haren bidez erakutsi zuena zera izan zen, jatorrizko erlatibo esplikatioak edo ez-murrizgarriak itzultzeko oso gutxitan erabili zela ZEIN/NON erlatiboa eta bestelako prozedurak erabili zirela haren ordeztu. Horren zergatia *zein* izenordain erlatiboaren bidezko perpaus erlatiboek zuten eta duten ospe txarra da. Halere, corpus txiki horretako murrizgarriekin ere antzeko joera ikusi zuen, eta ondorioztatu zuen «perpaus erlatiboak askoz maiztasun txikiagoz azaltzen direla euskaraz». Mahaigaineratu zuen beste ondorio garrantzitsua hau da: «-N atzizkiaz eraikitzen diren erlatiboek ez daukate forma hutsez erlatibo murrizgarrien eta ez murrizgarrien artean bereizteko modurik, eta zerbait izatekotan, erlatibo murrizgarriak dira forma substantibatuarekin (*gero erlatibozko aposizioak* deituak) ematen direnak».

2.2.2. Sancho: Errusierazko perpaus erlatiboen euskaratzea (2015)

Itzulpen-ikerketa sakon batean, errusierazko perpaus erlatiboen euskaratzea aztertu zuen Sanchok. Behaturiko testuetan ikusi zuen itzultzaileek joera ezberdinak izan zituztela, jatorrizko perpaus erlatiboen kopuruari eutsi ziotelako batzuek, eta beste batzuek bestelako prozedura sintaktikoak erabili zituztelako. Hiru multzo handitan banatu zituen ordain ez-erlatiboak (2015: 158-160): hipotaxia (menderakuntza mantentzen denetan baina beste mendeko perpaus mota batekin ordezkatzeko denetan), parataxia (erlatibozko perpausa eten eta bi esaldi edo gehiagotan banatzen denetan) eta sinplifikatzea (predikazioa perpaus mailatik IS mailara eramaten denetan, perpaus erlatiboen funtzio adjektibala mantenduz).

¹ EIZIEren web-orrian eskuragarri.

Jatorrizko perpaus erlatiboak maiz beste baliabide batzuen bitartez ordezkatu direneko ondorioa garrantzitsua da, perpaus erlatibo guztien % 68 erlatibatu baitzen euskaraz. Gainera, erlatibagarritasun-mailaren inguruko azalpen xehea eskaintzen du, bi multzo indentifikatu baitzituen errusierazko erlatibatzaileen artean: erlatibagaitzagoak (erlatibakuntzaren ezabaketa sarriago eragiten zutenak, eta, erlatibakuntza mantentzen dutenean ere, erlatibo aposatuekin euskaratuak izateko aukera handiago zutenak) eta erlatibagarriagoak («beraien euskal ordainak ia beti erlatiboazkoak eta ia beti ardatzaren ezkerretakoak» (2015: 298)). Gure lanaren kasuan, noski, ez da esanguratsua jakitea errusierazko zein erlatibatzailek sortzen dituen zailtasunak erlatibakuntzan, baizik eta SHko erlatibatzaileek XHren erlatibakuntza baldintza dezaketela.

Halaber, zinez interesgarritzat deritzogu erlatibizazioaren eta itzultzailearen estiloaren arteko korrelazioaren inguruko hausnarketari, erlatibakuntzaren euskaratze-prozesuan faktore linguistikoek eta estralinguistikoek eragiten dutela ondorioztatu zuelako. Erlatibakuntza mantentzen zen kasuetan «itzultzaile bakoitzari erlatibakuntza-estilo propio bat» atzeman zion Sanchok (2015: 8); erlatibakuntza ezabatzeko hautua egin zutenen artean, ordea, ez zuen desberdintasun esanguratsurik aurkitu, eta faktore linguistikoek egotzi zien desberdintasun-falta hori: «ordain ez-erlatiboan agerpenean esanguratsoagoa da testuinguruaren garrantzia, itzultzaileen artean ez baitago funtsezko desberdintasunik» (2015: 306).

2.2.3. Biguri: Perpaus erlatibo esplikatiboak euskaratik gaztelaniara eginiko literatura-itzulpenetan (2016)

Bigurik, bere doktore-tesian, euskara-gaztelania norabidean egindako hamar itzulpen analizatu zituen. Argi uzten du bi erlatibakuntza-sistema ezberdinen analisi kontrastiboa ez dela nahikoa estilistikoa ere den itzulpen-arazo bat aztertzeko. Egitura erlatiboak bi hizkuntzen arteko ezberdintasun sintaktiko-estilistikoa dela esan zuen, eta XX. mendean sortu zen *antizeiñismo* horrek ordura arte erabilitako erlatibakuntza errotik aldatu zuela, gaur egungo «ZEIN/NON erlatiboan erabilera oso urria» baita (2016: 286). Tesian baieztatu zuen euskarak bi kanon sintaktiko-estilistiko dituela, bata sorkuntzarako erabiltzen dena, zeinak itzulpenetan erabiltzen den erlatibo-kopurua baino baxuagoa duen, eta, bestea, itzulpenetarako erabiltzen dena. Ildo beretik, ondorioztatu zuen jatorrizko testuetan erlatiboan kopurua baxuagoa dela, eta egitura ez-erlatiboak (parataxia eta hipotaxia)

gehiagotan erabiltzen direla; xede testuetan, hots, gaztelaniaz erabilitako erlatibo esplikatiboen kopurua handiagoa da ordea, gaztelaniaren tradizio literarioaren presentzia handiagoa dutelako oro har. Hori ez zen testu guztietan gertatu, baina ondorioztatu zuen euskara-gaztelania itzulpenak «xede-hizkuntzan eta xede-sistema literarioaren ohikoa den eredu sintaktikoki konplexuagora moldatzen direla, jatorrizko testuetan baino egitura erlatibo esplikatibo gehiago erabiliz (2016: 386)». Hala, «literatura alorrean euskararen eta gaztelaniaren kanon sintaktiko-estilistikoak desberdinak dira gaur egun (2016: 384)».

2.3. Marko teorikoaren ondorioak

Laburbilduz, erlatibakuntzaren inguruko azalpenek argi utzi digute semantikaren baitako bereizketa bikoitz hori egitea korapilatsua izan daitekeela hainbat arrazoirengatik. Jatorrizko hizkuntzaren ezaugarri formalak tarteko, ezberdintasuna argi ikustea zaila da maiz; deskodetzea testuinguruaren arabera edo anbigua dela ikasi dugu. Xede-hizkuntzetan ere lausoa da kontua. Gaztelaniaren sisteman ortografiaren bidez berez argi eta garbi egiten den bereizketak salbuespenak dituela ikusi dugu, eta bereizketa tradizional dual horrekin ados ez dauden autoreak ere badaudela. Euskaraz, PEen balio semantikoaren inguruan desadostasun nabarmenak daude, batetik, formaren arabera bereizketa hertsia egiten dutenak ditugulako eta, bestetik, formaren eta semantikaren arteko autonomia aldarrikatzen dutenak (EGLU eta Biguri). Horren aurrean, guk ere -N erlatiboak automatikoki murrizgarritzat ez kontsideratzeko hautua egin dugu, eta oinarri hori argi izatea ezinbestekoa dela uste dugu azterketa semantikoan murrizgarri eta ez-murrizgarrien arteko bereizketan. Ez dugu, gainera, EGLU-Vek proposaturiko bereizketa lauhoitz hori erabili, zuzentasuna ahalik eta gehien mantentzearen.

Zailtasunak zailtasun, sailkapen semantiko bat egitea beharrezkotzat jotzen dugu, batez ere euskararen kasuan, ez-murrizgarritasunaren eta hautaturiko ordain erlatibo eta ez-erlatiboen artean korrelazio hori nolakoa den ikusteko: alde batetik, Bigurik aipatzen duen *antizeñismo* horren ondorioz, erlatibo ez-murrizgarriak ordain ez-erlatiboekin edo bestelako erlatiboekin ordezkatzeko hipotesia gure kasuan betetzen den ala ez ikusi nahi dugulako edo, alderantziz, ikusi berri dugun itzulpen-kanon horren ondorioz, *Der bewaffnete Freund* eleberriaren itzultzaileak, jatorrizko testuari fidelago agertu nahirik, ZEIN/NON erlatiboak erabili dituen alemaneko erlatiboek hala eskatzen zutenetan.

Gauzak horrela, sailkapen sintaktiko eta semantiko xehe baten bidez, itzultzaile berak euskaratu eta gaztelaniaratu duen obra honetatik hainbat ondorio ikusi nahiko genituzke. Lehenik, jatorrizko erlatiboak nola itzuli diren ez ezik, itzulbide bakoitza zenbateko maiztasunekin hautatu den ikusi nahi dugu. Bigarrenik, beste lanek (Biguri, Sancho) ateratako ondorioa (euskaraz karga erlatiboa beste hizkuntzetan baino baxuagoa da eta, horregatik, itzulpen-testuinguruetan atzerriko hizkuntzak euskaratzerakoan hasierako erlatibo ugari beste ordain ez-erlatiboen bidez itzultzen dira) gure kasuan ere mantentzen den ikusi nahi dugu, hau da, itzultzaileak gaztelaniaz erlatibo gehiago erabiliko dituen edo,

alderantziz, itzultzailea, antza denez euskararena den kanon erlatibo horri muzin eginez, jatorrizkoari fidel agertu den sintaktikoki, eta *source-oriented translation* delakoa egin duen. Hirugarrenik, nahiz eta ez dugun uste gaztelania bezalako hizkuntza menderatzaileak euskararen interferentziarik izan duenik, ikusi nahiko genuke ea, euskararen eraginez, euskarazkoan egindako hautuek nolabaiteko eraginik izan ote duten. Eta, laugarrenik, azterketa semantikoak eman ditzakeen fruituen artean, ikusi nahiko genuke ea errazago mantendu duen STko erlatibo murrizgarri/ez-murrizgarri bereizketa gaztelaniarako itzulpenean euskararakoan baino.

3. OBRA, IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Aztergai dugun jatorrizko obra (*Der bewaffnete Freund*) Raul Zelik idazle, itzultzaile eta politologoak argitaratu zuen 2007an. München jaio zen Zelik, 1968an, eta orain arteko ibilbidean hainbat eleberri (*Friss und stirb trotzdem, La Negra, Berliner Verhältnisse...*), saiakera politiko eta dibulgaziozko testu asko idatzi ditu. Euskal Herriarekin duen erlazio estuak fruitu asko eman ditu, horien artean aztergai dugun eleberria eta *Continuidad o ruptura* eta *La izquierda abertzale acertó* saiakerak, besteak beste². Bestalde, Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* lana itzuli zuen Petra Elser itzultzailearekin elkarlanean. *Berliner Verhältnisse* obragatik Liburuaren Sari Nazionalera nominatu zuten, Alemaniako sari literariorik garrantzitsuenetarikora, hain zuzen³.

Lagun armatua eleberriaren ardatzean Alex alemanaren eta Zubieta euskaldunaren arteko laguntasuna dugu, Euskal Herriko egoera politikoa eta borroka armatua tarteko. Liburuko protagonista, Alex, Bilbora itzultzen da ikerketa-proiektu bat dela medio, lehenago oporrak igaro ohi zituen hirira. Horrek Zubietarekin jarriko du aurrez aurre, poliziaren esanetan ETAko buruetako bat den eta klandestinitatean bizi den lagunarekin, hain zuzen. Zubieta Europako terrorista bilatuenetako bat da; Alexentzat, iraganeko lagun ona. Zubietak penintsula berekin zeharkatzea eskatzen dio Alexi eta arrazoi politikoez sortzen dioten beldurra tartean den arren, bidaia egitea onartzen du. Oroitzapenez, beldurrez eta tentsioez beteriko bidaia horrek identitatearen, borrokaren eta politikaren inguruko eleberria sortzen du, «road movie edo eleberri beltz baten jantzian, esangura politiko sakona duen liburua» (Raul Zelik 2009: 1).

Txalaparta argitaletxearen eskutik, gure corpuserako erabili dugun obra itzuli zuen Edorta Mataukok euskarara (*Lagun armatua*, 2009) eta gaztelaniara (*El amigo armado*, 2010). Gasteizen jaio zen itzultzailea, 1950ean, eta itzulpen dezente burutu ditu, Stefan Zweigen obra batzuk [*Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* (2007), *Emakume ezezagun baten gutuna* (2005)], esate baterako.⁴

² Raul Zeliken web-orritik.

³ Capián Swing web-orritik.

⁴ NOR da NOR datu-basetik.

4. PROZESUA ETA METODOLOGIA

4.1. Aztergaia zehaztu

GrAL batek eskaintzen duen espazio mugatuagatik, bi dira oinarriztat hartu ditugun PE motak: jatorrizko perpaus erlatibo arruntak edo atributiboak (2.1.1.1. atala) eta erlatibo jarraituak (2.1.1.3. atala). Azken horiek erlatibo guztien % 2 osatzen duten arren, haien izaera esplikatiboa tarteko, nola itzuli diren behatzea interesgarria dela uste dugu. Alde batera utzi ditugu, ondorioz, jatorrizko testuan erlatibakuntzaren bidez eman ez diren eta xede-testuetan ordain erlatiboekin itzuli diren informazio-unitateak. Hori gertatu da jatorrizko *Partizipial-tribut* eta egitura parataktiko batzuen kasuan. Ezbairik gabe, ordain ez-erlatiboak → ordain erlatiboak itzulpen-fenomenoa beste azterketa batzuetarako zinez interesgarria izan liteke.

4.2. Aztergaitik corpusera

Behin aztergaia zehaztu ondoren, obra oso-osorik aztertu ordez, eleberriaren pasarte batzuk bakarrik aztertzea erabaki genuen, eta horiekin corpus txiki bat osatzea. Erlatibakuntzaren azterketa parekide eta koherenteena burutzeko asmoz, hasierako lehen hiru kapituluak, erdialdeko hamabigarren eta hamairugarren kapituluak, eta amaierako hiru kapituluak hautatu genituen. Emaitza 198 trinomioko corpusa izan zen, zeina Excel taula batean bildu genuen gero, formatu horrek azterketaren emaitzak kopurutan ikusteko aukera eskaintzen duelako.

4.2.1. Corpusetik azterketa sintaktikora

Lan honetan egin nahi genuen azterketarako, argi genuen alde batetik erlatibakuntzaren **aspektu sintaktikoan** jarri nahi genuela arreta. Hortaz, trinomioek osatzen duten Excel taulari hiru zutabe atxiki genizkion, hizkuntza bakoitzean zer egitura sintaktiko erabili zuen ilustratzeko. Hauek dira taularako erabilitako izendapenak:

4.2.1.1. Alemanezko perpausen izendapenak

Erlatibo atributiboek izan ditzaketen erlatibatzaile ezberdinak analisisan ere islatu nahi genituen eta, hortaz, erlatibatzaileen araberrako azpi-multzoak sortzea erabaki genuen, horrek analisisan nolabaiteko eraginik izan zezakeen ikusteko:

- **E. A.: izenordaina**

- **E. A.: adberbioa**
- **E. A.: edutezko determinatzailea**
- **E. A.: preposiziodun izenordaina**
- **E. A.: preposiziodun edutezko determinatzailea**
- **Erlatibo jarraituak**
- **E. A. pronominalizatua:** azpimota honek sustantiboen ordeztu izenordainak ditu izen ardatz gisa, eta, ondorioz, *d*-izenordain erlatibo baten ordeztu *w*-izenordaina hartzen du:

Taulara 1 Esaldi atributibo pronominalizatu baten adibidea (DE)

Als ich in die Schuhe schlüpfte, fällt mir zum ersten Mal die Verbindung auf zwischen diesem Gefühl und dem, **was ich nach dem Ozon-Film vor drei Monaten auf dem Heimweg vom Kino zu Rabbee gesagt habe.** (Zelik 2007: 271-272)

4.2.1.2. Euskarazko ordainen izendapenak

Hemen aurkeztuko ditugu gure corpusean identifikatu ditugu perpaus erlatibo ezberdinak:

- **-N erlatibo arrunta**
- **-N erlatibo arrunt ezberdina:** itzultzaileak erlatiboa aldatu du batzuetan, jatorrizko unitate erlatiboaren informazioa beste era batera ordenatu baitu xede-erlatiboan. Hauek, ordea, kuantitatiboki –N erlatibo arrunten barruan sartu ditugu.

Taulara 2 -N erlatibo arrunt ezberdin baten adibidea (EUS)

Armin gehört einer Generation an, von deren Aktivismus immerhin ein Mindestmaß an liberaler Gesinnung übrig geblieben ist. (Zelik 2007: 17)	Armin ideia liberalen gutxieneko bat gorde duen belaunaldi ekintzaile batekoa da. (Zelik 2009: 9)
--	--

-N erlatibo aposatuen kasuan, hiru forma bereizi ditugu: lehena, izen ardatzaren inolako errepikapenik gabe emandakoa (*-N erlatibo aposatua*); bigarrena, izen ardatza errepikatuz edo izenordain bat gehituz emandakoa (*-N erlatibodun aposizioa*); eta, hirugarrena, 2.1.3.1.1.1. atalean ikusirikoa (*-N erlatibo aposatu gibeleratua*).

-N erlatibo aposatua:

Taula 3 -N erlatibo aposatu baten adibidea (EUS)

<p>... das Licht wölbt sich an der getönten Windschutzscheibe und bildet einen grellen Kranz, einen Kanal aus Helligkeit, durch den der Wagen hindurch aufs Ungewisse zurast. (Zelik 2007: 153)</p>	<p>... argiak haizetako ñabartuan jo eta uztai itsugarri bat osatu du, argitasun erreten bat, autoak badaezpada ziztu bizian zeharkatu duena. (Zelik 2009: 70)</p>
--	---

- **-N erlatibodun aposizioa:**

Taula 4 -N erlatibodun aposizio baten adibidea (EUS)

<p>Josu, wie der Chefredakteur der Zeitung, den die spanische Geheimpolizei 1989 erschossen hat. (Zelik 2007: 142)</p>	<p>Josu, egunkariko erredaktoreburua bezala, isileko polizia espainiarrak 1989an tiroz hil zuen hura bezala. (Zelik 2009: 64)</p>
---	--

- **-N erlatibo aposatu gibeleratua:** emaitzak kuantitatiboki ahalik eta koherenteenak izatearren, erlatibo jokatu gabe arrunten barruan sartu ditugu gero.

Taula 5 -N erlatibo aposatu gibeleratu baten adibidea (EUS)

<p>Er hatte ihm das Wohnzimmer überlassen, in dem sich, abgesehen von den Büchern, nur ein abgewetztes Sofa und ein mit Zeitungsausschnitten übersäter Spanholztisch befand,... (Zelik 2007: 152)</p>	<p>Etxebizitzan gela bat utzia zion, liburuez gain sofa lokatu bat eta egunkari-zatikiz gainezkaturiko konglomeratuzko mahai bat baino ez zeukana. (Zelik 2009: 69)</p>
---	--

- **Erlatibo jokatu gabe arrunta**
- **Erlatibo jokatu gabe aposatua:**

Taula 6 Erlatibo jokatu gabe aposatu baten adibidea (EUS)

<p>Ich lege eine CD mit Kinderliedern ein, die Hanna vor einigen Wochen im Auto vergessen hat. (Zelik 2007: 135)</p>	<p>Haur abestien CD bat jarri dut, Hannak aste batzuk lehenago autoan ahaztua. (Zelik 2009: 61)</p>
---	--

- **Erlatibo jokatu gabe aposatu ezberdina**
- **Erlatibo jokatu gabea: izen ardatza isildua:** emaitzak kuantitatiboki ahalik eta koherenteenak izatearren, erlatibo jokatu gabe arrunten barruan sartu ditugu gero.

Taula 7 Izen ardatza isildua duen erlatibo jokatu gabe baten adibidea (EUS)

Wieder geht mir durch den Kopf, woran ich schon am Vortag ständig gedacht habe. (Zelik 2007: 273-274)	Berriro otu zait bezperan jada etengabe pentsatutakoa. (Zelik 2009: 123)
---	---

- **ZEIN erlatiboa**
- **BAIT- erlatiboa**
- **NON erlatiboa**
- **Erlatiborik ez:** JTko erlatiboa ordain ez-erlatiboekin itzuli duenatarako.

Sanchok erabilitako hiru multzoak (2015: 158-160) azpi-multzo ezberdinetan banatzea erabaki dugu. Honakoa da, hortaz, gure azpisailkapena:

- o **Parataxia:** alborakuntza⁵, marra luzeak (—), emendiozko juntadura (*eta*) eta aurkaritzako juntadura (*baina*).
- o **Hipotaxia:** kontzesiozko perpausa (*arren, ba- ere*), helburuzko perpausa, denborazko perpausa eta bestelako egitura hipotaktikoak.
- o **Sinplifikatzea:** izenondoa, izenlaguna, aposizioa (erlatiborik gabekoa), sustantiboa, gerundioa (*kantatuz*), aditz izena (*kantatzen*), ezabaketa eta bestelako egiturak.

4.2.1.3. Gaztelaniazko ordainen izendapena

Alemanarekin bezala, erlatibatzaile ezberdinak kontuan hartuz, honako etiketak sortu ditugu:

- **Erlatiboa: izenordaina**
- **Erlatibo ezberdina: izenordaina**
- **Erlatiboa: adberbioa**

⁵ SEG: elementuak juntagailurik gabe elkartzen direnean, elementuak maila berean bata bestearen jarraian emanez. *Isilik dago, ez daki ezer*. Alborakuntzaren etiketaren baitan sartu ditugu komen eta puntu eta komaren bidez banatzen diren esaldiez gain, baita puntu bidez bereizten direnak.

- **Erlatiboa: edutezko determinatzailea**
- **Erlatiboa: preposiziodun izenordaina**
- **Erlatiboa: preposiziodun adberbioa**
- **Erlatiboa: preposiziodun edutezko determinatzailea**
- **Erlatibo jokatu gabea:** gaztelaniaz ere identifikatu ditugu aditz-forma jokatu gabeekin (partizipio eta infinitiboekin) sorturiko perpaus erlatiboak:

Taula 8 Erlatibo jokatu gabe baten adibidea (ES)

Die Unternehmer würden Abgaben an die Organisation zahlen, Revolutionssteuern, Teil des Mehrwerts, den sie zuvor ihren Arbeitern abgepresst haben , hat der Mann gesagt. (Zelik 2007: 136)	Los empresarios pagarían sus contribuciones a la organización, el impuesto revolucionario, parte de la plusvalía previamente extraída por ellos a los trabajadores , dijo el hombre. (Zelik 2010: 81-82)
---	---

- **Erlatibo pronominalizatua:** arestian ikusi dugun bezala, erlatibo jarraituak itzultzeko *lo que* bezalako konposatuak erabiltzen dira:

Taula 9 Perpaus pronominalizatu baten adibidea (ES)

Der Alte schien alles zu archivieren, was aus Papier war . (Zelik 2007: 152)	El viejo parecía archivar todo lo que era de papel . (Zelik 2010: 92)
---	--

4.2.2. Corpusetik azterketa semantikora

Analisiaren bigarren zati batean erlatibakuntzari loturiko **aspektu semantikoa** ere aztertu nahi genuen. Murrizgarri/ez-murrizgarri edo espezifikatibo/esplikatibo bereizketa tradizionalari eutsi diogu, gure corpuseko jatorrizko testuak kasu gehienetan bereizketa argia egitea ahalbidetzen duelako testuinguruaren eta izen ardatzaren arabera. Halere, egia da kasu batzuk ambiguoak direla, hots, bi interpretazioak onartzen dituztela. Ordain ez-erlatiboak «erlatiborik ez» etiketaz adierazi ditugun arren inolako azalpen semantikorik egin gabe, ohartu gara erlatiboa ezabatuagatik balio semantikoa, noski, nolabait mantendu behar dela. Hori, ordea, ikergai interesgarria dela iruditzen zaigu beste lan mota batzuetarako. Hortaz, honakoak dira aspektu semantikorako sortu ditugun laburdurak:

4.2.2.1.Jatorri-hizkuntza: alemana

- **E. M.:** erlatibo murrizgarria.
- **E. E. M.:** erlatibo ez-murrizgarria.
- **Anbigua:** bi interpretazioak eskaintzen dituen esaldia.

4.2.2.2.Xede-hizkuntza: euskara eta gaztelania

JTko izaera semantikoa mantendu duenentarako:

- **E. M. --> E. M.**
- **E. E. M. --> E. E. M.**

JTko ordain erlatiboa ordain ez-erlatibo batekin itzuli duenentarako:

- **E. M./E. E. M. --> erlatiborik ez**

JTko izaera semantiko aldatu duenentarako:

- **E. M. --> E. E. M.**
- **E. E. M. --> E. M.**

JTko izaera semantikoa mantendu bai, baina modulatu egin badu:

- **E. M. --> E. M. ezberdina**

JTko izaera semantikoa eta egitura aldatu dituenentarako:

- **E. M. --> E. E. M. ezberdina**
- **E. E. M. --> E. M. ezberdina**

JTko ordain erlatibo anbiguoaren izaera anbigua galdu denentarako:

- **Anbigua --> E. M./ E. E. M.**

JTko ordain erlatiboa anbigua ordain ez-erlatibo batekin itzuli duenentarako:

- **Anbigua/E. M./E. E. M --> erlatiborik ez**

5. AZTERKETA SINAKTIKO ETA SEMANTIKOAREN EMAITZAK

Atal honetan aurkeztuko ditugu azterketa sintaktiko eta semantikoak eman dituen emaitza nagusiak.


5.1. Azterketa sintaktikoa: erlatibakuntza

Honako taulak erakusten du itzultzaileak euskaraz erlatibatzeke joera nabarmen baxuagoa izan duela gaztelaniarekin alderatuta:

Taula 10 Erlatibakuntza sorburu- eta xede-hizkuntzetan

Erlatiboak	H. A.	E. A.	B. A.	Guztira
PEak (DE)	63	70	65	198
PEak (EUS)	41 (% 65)	51 (% 72,9)	49 (% 73,8)	141 (% 71,2)
PEak (ES)	59 (% 93,65)	64 (% 91,4)	55 (% 84,6)	178 (% 89,9)

Grafikoa 1 Erlatibakuntza sorburu- eta xede-hizkuntzetan



Gaztelaniaz, taulak erakusten duen bezala, hasierako eta erdiko ataletan jatorrizko % 90 inguru itzuli ditu erlatiboen bidez. Bukaerako atalean jaitsiera txiki bat izan du, baina ehunekoak altua da, halere. Euskaraz hasmentan izan du erlatibatzeke joerarik baxuena, baina

nahiko egonkorra izan da, halere. Behin erlatibatzeke maiztasuna ikusita, azter dezagun zein diren euskaraz erabili dituen ordain erlatiboak eta zer kopurutan:

Taula 11 Euskarazko ordain erlatiboak

ORDAIN ERLATIBOAK	H. A.	E. A.	B. A.	Guztira
-N erlatibo arrunta	20	25	24	69 (% 48,9)
-N erlatibo aposatua	11	8	5	24 (% 17)
-N erlatibodun aposizioa	3	2	2	7 (% 5)
Erlatibo jokatugabe arrunta	1	6	5	12 (% 8,5)
Erlatibo jokatugabe aposatua	4	2	2	8 (% 5,7)
ZEIN erlatiboa	1	0	5	6 (% 4,3)
NON erlatiboa	0	1	1	2 (% 1,4)
BAIT- erlatiboa	1	7	5	13 (% 9,2)
GUZTIRA	41 (% 29,3)	51 (% 36,4)	48 (% 34,3)	141

Taula 12 Euskarazko ordain erlatiboak izen ardatzarekiko


ORDAIN ERLATIBOAK	H. A.	E. A.	B. A.	Guztira
Izen ardatzaren ezkerrean	21	31	29	81 (% 57,5)
Izen ardatzaren eskuinean	20	20	20	60 (% 42,5)

Ikusi dugun bezala, forma erlatiborik erabiliena –N erlatibo arrunta da, 140 euskal ordain erlatiboetatik 69 kasutan erabili baitu, hots, kasuen ia erdian (% 49,3). Datu hori ez da harritzekoa, gramatikek eta adituek *arrunt* izena emateaz gain, erlatiborik ohikoena dela esaten dutelako. Erlatibo jokatugabeak ere maiz erabili ditu, ordain erlatiboen % 14,1 osatzen baitute.

Emaitza esanguratsu bat ZEIN/NON/BAIT- erlatiboen erabilera baxua da. ZEIN erlatiboen erabilera % 4,3koa da; ia denak, gainera, bukaerako atalean daude. Bi NON erlatibo bakarrik erabili ditu; erabilera benetan baxua, hortaz (% 1,4). BAIT- erlatiboak ere gutxitan erabili dituen arren, erabilera zertxobait altuago da (% 9,2). Jarraian egingo dugun azterketa semantikoak erakutsiko digu zein diren jatorrizko ez-murrizgarriak itzultzeko

erabili dituen egiturak. Hori interesgarria izango da, ZEIN/NON/BAIT- erlatiboak baitira, aditu batzuen ustez, ez-murrizgarriak sortzeko modu bakarrak. Haatik, taulak erakusten du aipatu erlatiboek % 15 bakarrik osatzen dutela, eta erlatibo ez-murrizgarrien ehunekoa, aldiz, handiagoa da (% 41,4).

Bigarren emaitza esanguratsua da bigarren ordain erlatibo erabiliena –N erlatibo aposatuena dela (% 17). Teorian ikusi dugun bezala, euskaraz erlatibakuntzan askotan erabiltzen den baliabidea da; haatik, joera orokorraz gain, baliteke itzultzailearen bereizgarria edo ezaugarri estilistikoa izatea. Adibidez, Sanchoren corpusean ehunekoa askoz ere baxuagoa da (% 6); nahiz eta jakinaren gainean gauden bestelako hizkuntza-pare batetik eta bestelako corpus batetik ateratako emaitza dela hori, Sanchoren kasuan erabilera-eskalan azken aurreko baliabidea izatea ez da gutxiesteko zerbait. Gainera, nahiz eta azterketan etiketa ezberdinak erabili ditugun, erlatibo aposatuen multzo berean sar daitezke honakook: -N erlatibo aposatuak, -N erlatibodun aposizioa eta erlatibo jokatu gabe aposatuak. Horiek guztiek % 27,7 osatzen dute, zeina ehuneko altuagoa den, hortaz. Gure ustez, maiztasun horren arrazoia estilistikoa izan liteke, balitekeelako erlatibo aposatuen erabileraren atzean jatorrizko informazio-hurrenkera mantentzeko ahalegina egotea. Izen ardatzaren eskuineko erlatiboak (erlatibo aposatuak + ZEIN/NON/BAIT- erlatiboak), azken finean, informazioa SHren era eta hurrenkera berean txertatzeko baliabidea izan daitezke, lehenik izen ardatza aurkezten baita eta gero horren inguruko atributibo gehigarria. Gainera, kontuan hartzekoa da, gure corpusean, izen ardatzaren eskuinean kokatzen diren erlatiboen kopurua (% 42,5) Sanchok bere corpusean ikusi zuena baino handiagoa dela (% 29), eta horien barruan zatirik handiena erlatibo aposatu guztiena dela (% 65); hortaz, itzultzaileak erlatiboa izen ardatzaren eskuinean kokatzeko arakoan gehienetan aposatuen bidez egin du ZEIN/NON erlatiboekiko duen ezkortasun orokorragatik.



Grafikoa 2 Ordain erlatiboak euskaraz

5.2. Azterketa sintaktikoa: erlatibakuntza-eza

Arestian aipatu dugun bezala, euskaraz erlatiboak mantentzeko joera baxuagoa izan bazuen, ordain ez-erlatiboak gehiagotan hautatu zituelako da hori, taula honek erakusten duen moduan:

Taula 13 Erlatibakuntza-eza sorburu- eta xede-hizkuntzetan

Erlatiboak	Hasierako atala	Erdiko atala	Bukaerako atala	Guztira
PEak (DE)	63	70	65	198
Erlatiborik ez (EUS)	21 (% 34,9)	19 (% 27,1)	17 (% 26,2)	57 (% 28,8)
Erlatiborik ez (ES)	4 (% 6,3)	6 (% 8,6)	10 (% 15,4)	20 (% 10,1)

Euskararen kasuan, esan genezake erlatiboa ezabatzeko joera berdintsua dela hiru ataletan, perpaus erlatiborik gabe emandako unitateen multzoak atal bakoitzaren heren bat osatzen duelako, gutxi gorabehera. Atalen arteko aldea ez dugu uste esanguratsua edo nahikoa denik atalen artean itzultzaileak jarrera ezberdina izan duela ondorioztatzeko. Halaber, gaztelaniaz, ordain ez-erlatiboak aukeratzeko joera zertxobait handiagoa izan den

arren bukaerako atalean, % 15,4ra igo baita besteetan baxuagoa den ordain ez-erlatiboen ehunekoa, esan genezake itzultzaileak joera konstantea izan duela ordain ez-erlatiboek dagokienez behinik behin, eta, itzulpenarekin aurrera egin ahala, ez dirudiela jatorrizko testuak eta bere joskerak itzal handiagoa izan dutenik itzultzailearengan.

Gaztelaniak erlatibakuntza mantentzeko joera handiagoa izatea bi arrazoiengatik gertatzen dela uste dugu. Alde batetik, gaztelania, marko teorikoan ikusi dugu bezala, karga erlatibo handiko hizkuntza delako eta, jatorrizko testuetako karga erlatiboa dena delakoa izanagatik, gaztelaniak beti nabarmen erlatibatzeke joera duelako. Hori ondorioztatu zuen Bigurik bere tesian (2015), izan ere, karga erlatibo baxuagoa zuten euskarazko jatorri-testuak itzultzean karga erlatiboaren ehunekoa ia denetan handitu zen nabarmen. Beste alde batetik, joera orokor hori gure corpus eta alemana-gaztelania hizkuntza-norabidera murriztuta, bi hizkuntzon arteko antzekotasun sintaktikoak garrantzi handia duela ikusi dugu. Nahiz eta JTko eta XTko erlatibatzaileak beti bat ez etorri (batzuetan jatorrizko izenordainek preposiziodun izenordainak eskatzen dituzte, edo jatorrizko preposiziodun izenordaina adberbio batekin ordezkatu da (*in der* → *donde*)), esanguratsuen ez da erlatibatzaile berak kasu beretan erabiltzea edo ez, baizik eta kontuan hartzea bi hizkuntzok, izen ardatzaren eskuinean erlatibatzen dutenek, baliabide erlatibo berak eta erlatibakuntza-joera ere antzekoa dutela (azken baieztapen hori beste azterketa batzuekin zehaztu beharko litzatekeen arren). Ondorioz, itzultzaileak jatorrizko egitura bera mantentzeko hautuak hautematen duenean, askotan egitura horri eusteko hautua egiten du, adibide honetan bezala:

Taula 14 Alemanaren eta gaztelaniaren antzekotasuna izenordainetan

Der Helikopter, mit dessen Hilfe nach boat people gesucht wird, (...) verschwindet in Richtung Südwesten. (Zelik 2007: 10)	Helikopteroa — boat people ari da bilatzen, (...) hegomendebalderantz desagertu da. (Zelik 2009: 5)	El helicóptero, con cuya ayuda buscan a los boat people, desaparece en dirección suroeste. (Zelik 2010: 6)
---	--	---

5.2.1. Euskarazko ordain ez-erlatiboak

Beha ditzagun zein diren erabili dituen ordain ez-erlatiboak eta zenbateko maiztasunez.

Taula 15 Ordain ez-erlatiboak euskaraz

ORDAIN EZ-ERLATIBOAK (EUS)		GUZTIRA
Parataxia	Alborakuntza	15
	Marra luzeak	9
	Emendiozko juntadura	3
	Aurkaritzako juntadura	1
		28 (% 49,1)
Hipotaxia	Kontzesiozko perpausa	5
	Helburuzko perpausa	1
	Denborazko perpausa	1
	Bestelako egitura hipotaktikoa	2
		9 (% 15,8)
Sinplifikatzea	Izenondoa	3
	Izenlaguna	3
	Aditz izena	3
	Aposizioa	2
	Sustantiboa	2
	Gerundioa	1
	Ezabaketa	1
	Bestelako egitura	5
		20 (% 35,1)

Taulak erakusten duen bezala, euskaraz gehien erabili duen baliabide ez-erlatiboa **parataxia** da (% 49,1), Sanchoren corpusean baino zertxobait baxuagoa (% 64). Gainera, parataxiaren barruan, alborakuntza bidezko esaldiak dira gehien erabiltzen dituenak

(% 53,6), eten ortografiko eta erreferentzia anaforiko baten bidez. Oso baliabide erabilgarria da testuinguru guztietan erabil daitekeelako, adibide honetan ikus daitekeen bezala:

Taula 16 Euskarazko alborakuntzaren adibidea

<p>Die Alliierten belegen ihn nach dem Zweiten Weltkrieg mit Lehrverbot, was seinem Einfluss auf zahllose Studentengenerationen allerdings keinen Abbruch tut. (Zelik 2007: 134)</p>	<p>Aliatuek katedra-debekuaren azpian isilarazi nahi izan zuten Bigarren Mundu Gerraren ondoren; horrek, alabaina, ez zuen batere eten hark ikasle-belaunaldi asko eta askorengan izandako eragina. (Zelik 2009: 61)</p>
---	---

Ez da gutxiestekoa, jakina, marra luzeen erabilera, parataxiaren baitan % 34,5 osatzen baitu. Marra horien erabilera itzultzailearen estiloaren ezaugarrietako bat dela esan genezake, jatorrizkoan erabiltzen ez diren marrak txertatu dituelako berak. Baliabide horrek, arestian erlatibo aposatuekin ikusi dugun bezala (5.1. atalean), informazio-hurrenkera modu berean emateko aukera eskaintzen du, baina, batzuen ustez, irakurterraztasunaren kaltetan. Jarraian ikusiko dugun adibidean, *Der Helikopter* izen ardatzaren baitan eraikitako perpaus erlatiboa erlatibo edo alborakuntzaren bitartez lotu baino, nahiago izan du marra luzeak erabiltzea:

Taula 17 Euskarazko marra luzeen adibidea

<p>Der Helikopter, mit dessen Hilfe nach boat people gesucht wird, nach illegalen Einwanderern, die man von der Küste fernzuhalten versucht, verschwindet in Richtung Südwesten. (Zelik 2007: 10)</p>	<p>Helikopteroa —boat people ari da bilatzen, kostatik urrun mantentzen saiatzen diren legez kanpoko etorkinak— hegomendebalerantz desagertu da. (Zelik 2009: 5)</p>
--	---

Ez da kasualitatea marra luzeak erabili dituen kasu guztiak erlatibo ez-murrizgarriak izatea, erabilitako 10 kasuetatik bakarra baita jatorriz murrizgarria. Honek lotura zuzena du ZEIN erlatiboen erabilera baxuarekin. Ez-murrizgarri horiek ZEIN izenordain erlatiboarekin arazorik gabe itzuli daitezkeen kasuak diren arren, bestelako egitura konplexuagoa erabiltzea erabaki du, marra luzeen bidezko parataxia, esaterako. Baliabide hori, gainera, gaztelaniazko

bertsiora ere iritsi da euskararen zubi-funtzio horren ondorioz. Bitan bakarrik egin duen arren, interesgarria dela uste dugu, gaztelaniaz bestelako erlatibo bat egin zezakeelako:

Taula 18 Euskarazko marra luzeen lerradura gaztelaniara

<p>Zubieta, der endlich gesund zu sein scheint, seit 36 Stunden kein Fieber mehr hatte, lotst mich Richtung Córdoba, dann weiter nach Süden. (Zelik 2007: 282)</p>	<p>Zubietak —azkenik, osaturik dirudi; azkeneko orduotan ez du sukar 36 gehiagorik izan— Kordobarako noranzkoan gidarazidit, gero jarraian hegorantz. (Zelik 2009: 127)</p>	<p>Zubieta —por fin parece estar recuperado, en las últimas 36 horas no ha tenido más ataques de fiebre— me indica la dirección a Córdoba, y a continuación hacia el sur. (Zelik 2010: 169)</p>
---	--	--

Bestalde, taulak erakusten duen moduan, ez da ohikoa izan jatorrizko PEa **hipotaxiarekin** ordezkatzea, oso gutxitan (% 15,8) erabaki baitu halakoak erabiltzea. Horren zioa zera izan daiteke, perpaus erlatiboak oro har duten funtzio semantiko atributiboak bat ez egitea mendeko perpausak izan dezaketenarekin. Parataxiak ez du haatik inolako berezko esanahirik, eta oro har egitura erlatibo ororen truke erabil daitekeela esan genezake. Hipotaxiaren baitan kontzesiozko perpausak gehiagotan erabili zituen arren, gure corpusa txikiegia da ondorioztatzeko hori dela oro har gehiagotan erabiltzen dena. Corpus handiago baten analisia egin beharko litzateke hipotaxiaren baitako ondorio xeheagoak lortzeko.

Simplifikatzearen baitan ez dago gailentzen den teknika bakar bat, ordain mota anitz egon arren bakoitza gutxitan erabili baitu. Haatik, orotara ordain ez-erlatiboen herena (% 35,1) izatea ez da gutxieteko zerbait, erakusten baitu itzultzaileak maiz erabili duen teknika multzoa dela. Hona hemen adibide bat:

Taula 19 Euskarazko simplifikatzearen adibidea

<p>Die Schüsse, die ich pfeifen höre, bleiben unwirklich... (Zelik 2007: 123)</p>	<p>Tiroen ziztu hotsak irrealak begitandu zaizkit,... (Zelik 2009: 56)</p>
--	---

5.2.2. Gaztelaniazko ordain ez-erlatiboak

Ikus ditzagun, orain, gaztelaniazko ordain ez-erlatiboak kopurutan:

Taula 20 Ordain ez-erlatiboak gaztelaniaz

ORDAIN EZ-ERLATIBOAK (ES)		GUZTIRA
Parataxia	Alborakuntza	2
	Marra luzeak	2
	Aurkaritzako juntadura	1
		5 (% 25)
Hipotaxia	Kausazko perpausa	2
	Denborazko perpausa	1
	Bestelako egitura hipotaktikoa	1
		4 (% 20)
Sinplifikatzea	Preposizio sintagma	4
	Izenondoa	4
	Sustantiboa	2
	Gerundioa	1
		11 (% 55)

Gaztelaniari dagokionez, ez dago hainbesteko aniztasunik teknika bakoitzaren baitan. **Parataxia** eta **hipotaxia** gutxitan erabili zituen, eta nagusiki erabili zuen teknika ez-erlatiboa **sinplifikatzea** izan zen. Bakoitzaren baitan ez dago gailentzen den teknirik, baina aipagarria da batzuetan jatorrizko erlatiboa sinplifikatzeko preposizio sintagmak eta izenondoak erabili dituela, eta halako esaldiak sortu dituela:

Taula 21 Preposizio sintagmaren bidezko sinplifikatzea (ES)

...das Foto eines vielleicht 27 Jahre alten Mannes, der sich vor einer Mauer hatte abbilden lassen , einer kahlen, hohen Betonmauer. (Zelik 2007: 280)	...la fotografía de un hombre de aproximadamente 27 años con un muro a sus espaldas , un muro de hormigón alto y desnudo. (Zelik 2009: 167)
---	--

Hasmentan genuen hipotesietako batera bueltatuz, hau da, euskarazko bertsioko ez-erlatiboek nolabaiteko eraginik izan duten ikusteko, argi utzi behar dugu euskararen zubi-

izaerak izan duen eragina baxua dela, erlatibakuntzari dagokionez behinik behin. Egia da gaztelaniazko ordain ez-erlatibo batzuek euskaraz ere ordain ez-erlatiboak dituztela (18. taula kasu), baina hori ez da inolaz ere beti gertatu, gaztelaniazko 22 ordain ez-erlatiboetatik 9 kasutan euskaraz erlatibatzea hautatu baitu. Hona hemen adibide bat:

Taula 22 Euskaraz ordain erlatiboa eta gaztelaniaz ordain ez-erlatiboa

Auf dem Wasser, das überschaubar wirkt , noch schmäler als im August, sind auch ein paar Segelboote zu sehen. (Zelik 2007: 286)	Begien helmenean diren uretan, abuztuan baino gutxiago, ikusgai dira belaontzi batzuk. (Zelik 2009: 129)	En las aguas al alcance de la vista , en menor medida que en agosto, aún se ven algunos veleros. (Zelik 2010: 171)
--	---	---

Kasu bakan batzuetan, noski, argi ikusten da euskaraz erabili duen prozedura ez-erlatibo bera erabili duela gaztelaniaz ere. Arrazoi ezberdinak egon daitezke horretarako: euskarazko bertsioetik abiatu delako edo, besterik gabe, gustuko duen edo funtzionatzen duen baliokidea topatu duelako eta gaztelaniaz ere berdina erabili duelako:

Taula 23 Sinplifikatzearen lerradura gaztelaniara

Auf dem Deck, das ganz weiß ist und in der Sonne leuchtet ,... (Zelik 2007: 284)	Ontzi gainean, dena zuri-zuri eta eguzkitan dirdai ,... (Zelik, 2009: 128)	En la cubierta, completamente blanca y reluciente al sol , hay un hombre. (Zelik, 2010: 170)
---	---	---

5.3. Azterketa semantikoa

Analisi semantikoak emandako emaitza orokorrak aztertuko ditugu zati honetan. Jatorrizko testuko analisi semantikoan 102 perpaus murrizgarri eta 82 ez-murrizgarri identifikatu genituen. Interpretazio bikoitza duten 14 perpaus erlatibo ere atzeman ditugu *ambiguo* izenpean. Honako taulok erakusten dute zein izan den bi erlatibo nagusien aurrean izandako jarrera:

Taula 24 Ez-murrizgarrien eta murrizgarrien itzulpena

Murrizgarriak	EUS	ES	Ez-murrizgarriak	EUS	ES
E. M. → E. M.	83 (% 81,4)	91 (% 89,2)	E. E. M. → E. E. M.	32 (% 39,0)	56 (% 68,3)
E. M. → erlatiborik ez	18 (% 17,6)	6 (% 5,9)	E. E. M. → erlatiborik ez	36 (% 43,9)	15 (% 18,3)
E. M. → E. E. M.	1 (% 0,9)	5 (% 4,9)	E. E. M. → E. M.	13 (% 15,6)	11 (% 13,4)

Ikusten denez, bai euskaraz bai gaztelaniaz, erlatibakuntza bere horretan mantentzeko joera handiagoa da jatorrizkoa murrizgarria denean (EUS: % 81,4, ES: % 89,2), jatorrizkoa ez-murrizgarria denean baino (EUS: % 39,0, ES: % 68,3). Euskaraz, izan ere, JTko PE ez-murrizgarrien % 43,9 itzuli dira ordain ez-erlatiboekin. Gaztelaniaz, aldiz, erlatibakuntzaren aldeko marko horren pean, baxua da ez-murrizgarriak ezabatzeko ehunekoa (% 18,3) eta are baxuagoa murrizgarrien kasuan (% 4,9). Euskararen kasuan ezbairik gabe ondorioztatu dezakeguna zera da: erlatibo ez-murrizgarriak itzulpen-arazo bat suposa dezaketela itzultzailearentzat; horregatik, nahiago du batzuetan horiek ez itzultzea (% 43,9), murrizgarri izaera ematea (% 15,6) edo egitura *korapilatsu* bat erabili beharrean (*zeinarekin, zeinaren bitartez...*), modulatzeari. Modulatzeari mezuaren forma aldatzea da, aldaketa semantiko edo ikuspuntu-aldaketa baten bitartez (Hurtado 2001: 270). Hori da, hain zuzen, emaitzetan islatu nahi genuen beste kontu bat, «E. E. M. --> E. E. M. ezberdina» etiketak eman baitu fruiturik. Honakoa dugu modulazioaren adibide bat:

Taula 25 Modulazioaren adibidea

<p>...das Foto eines vielleicht 27 Jahre alten Mannes, der sich vor einer Mauer hatte abbilden lassen, einer kahlen, hohen Betonmauer. (Zelik 2007: 280)</p>	<p>...gutxi gorabehera urteko 27 gizon baten argazkia zen, hormigoizko murru soil eta garai baten aurrean ateratakoa. (Zelik 2009: 126)</p>
---	--

Argi dago, kasu hauetan, modulazioaren eta xede-hizkuntzaren erlatibagarritasunera egokitzeko prozedura ohikoaren artean ezberdintasuna oso fina izan daitekeela, eta corpus sakonago batean aztertu beharreko gaia dela; halere, ez dugu uste Mataukoren joera isolatua denik, ez-murrizgarrien aurrean askok duten jarrera baizik.

Taulek erakusten duten beste datu esanguratsua da jatorrizko izaera semantikoa aldatzeko joera ez-murrizgarrien kasuan gertatu dela bereziki: euskaraz (% 15,6) eta gaztelaniaz (% 13,4). Ehuneko antzekoa izateak honako hipotesira eraman gaitzake: euskarazkoan egindako aldaketa semantikoa gaztelaniazkoa pasa da. Corpora xehe behatzearekoan ikus dezakegu 11 perpaustik kasu batean bakarrik dela tarteko euskarazko bertsioa ez-murrizgarria, bi kasutan ez zituela euskaraz erlatibatu, eta 11 esalditatik 8 kasutan egin zuela E. E. M. --> E. M. eraldaketa ere euskaraz. Azken hori adibide honetan ikus dezakegu:

Taula 26 E. E. M. --> E. M. eraldaketaren adibidea

<p>Der Nieselregen, der mir ins Gesicht fällt, wird nach Braunkohlenbriketts schmekken. (Zelik 2007: 287)</p>	<p>Aurpegira jausiko zaidan langarrak ikatz arrezko adreiluen zaporea izango du (Zelik 2009: 129)</p>	<p>La llovizna que me caerá al rostro tendrá el sabor de briquetas de carbón pardo... (Zelik 2010: 172)</p>
--	--	--

Nahiz eta hasmentan, gaztelaniaren komaren arauari jarraiki eta –N erlatibo arruntei egozten dieten balio murrizgarriagatik, halako guztiak murrizgarriak direla pentsatu dugun, kasu bakan batzuetan bakarrik balio hori ez dutela ikusi dugu. Ondorengo trinomioetan, adibidez, testuinguruak argi utzi digu gaztelaniakoek balio ez-murrizgarria dutela, komarik ez izan arren.

Taula 27 Komarik ez duten PE ez-murrizgarrien adibideak (ES)

Mein Blick fällt auf die Frau, die gleichzeitig Montserrat und Rabbee ist und an der ich sehr hänge (Zelik 2007: 123)	Emakumeari begiratu diot, aldi berean Montserrat eta Rabbee baita eta atxikitasun handia baitiot. (Zelik 2009: 56)	Reposo la mirada en la mujer que es al mismo tiempo Montserrat y Rabbee y a la que tengo mucho cariño. (Zelik 2010: 74)
...eigneten sich die marginale Sprache wieder an, die von den Großeltern zu Hause noch geredet wurde. (Zelik 2007: 35)	berriro berenganatu zuten bazter hizkuntza, aitonamonek oraindik etxean hitz egina baina landugabe eta larrekotzat joa. (Zelik 2009: 16)	volvieron a hacer suya la lengua marginal que todavía hablaban los mayores en casa pero era considerada como de ámbito rural y no cultivada; (Zelik 2010: 16)

Azken finean, izen ardatza bakarra da, jada ongi definiturikoa, eta nahiz eta ahozkoan beharbada geldiunerik ez egin, Atleták 2.1.2.1. atalean aipatzen duen salbuespena izan liteke kasu horietan gertatzen dena. Euskaraz ere, salbuespenaren ildo beretik, identifikatu dugu esaldi pare bat, zeinetan –N erlatibo arrunten funtzioa ez den murriztea edo identifikatzea, azaltzea baizik:

Taula 28 -N erlatibo arrunt ez-murrizgarri baten adibidea

Es ist seltsam, denke ich, er verschwindet wie Corto Maltés, der Vagabund, dessen Spuren sich auf dem Meer verlieren. (Zelik 2007: 285)	Bitxia da, pentsatu dut, Corto Maltes bezala desagertzen ari da, lorratzak itsasoan galduz doan alderraia bezala. (Zelik 2009: 128)
--	--

Adibide horiek erakusten digutena zera da, erlatibo baten balio semantikoa zehazterako orduan, testuinguruak irizpide formal edo sintaktikoak baino pisu handiagoa duela irakurlearen gogoan gaztelaniazko ortografiaren araberako bereizketak baino eta, halaber, euskaraz –N erlatibo arrunten bidez ere sortzen direla ez-murrizgarriak.

Baina, noski, xede-testuetan ez-murrizgarriak ezabatzeko jarrera ezberdina izan duela ikusi dugu, euskaraz ez-murrizgarriak ezabatzea erabaki duen kasu guztietan (% 45,1) ez duelako, gero, gaztelaniaz berdin egin (% 18,3). Emaitza ez da, noski, ausazkoa eta inolaz

ere euskarak duen karga erlatibo baxuagoa aitzakiatzat hartuta argumentatu daitekeena; gure ustez, erlatibo ez-murrizgarriak ezabatzearen atzean argi eta garbi ez-murrizgarriak diren ZEIN/NON erlatiboak ez erabili nahi izatea dago. Horregatik sortu zituen parataxi bidezko halako alternatibak:

Taula 29 PE ez-murrizgarritik alborakuntzara

Die Schotterpiste knirscht leise, als wir am nächsten Tag auf die alte Mühle von Katharinas Vater zurollen, in der er seit bald zehn Jahren wohnt. (Zelik 2007: 16)	Legarrezko pistak karraska egin du leun, hurrengo egunean autoz Katharinaren aitaren errota zaharrera inguratu garenean; laster hamar urte egingo ditu han bizi dela. (Zelik 2009: 8)	La pista de grava cruje levemente cuando al día siguiente rodamos hacia el viejo molino del padre de Katharina, donde vive desde hará pronto diez años. (Zelik 2010: 9)
--	--	--

5.3.1. Ez-murrizgarrien euskararako itzulpena

JTko ez-murrizgarri asko euskarazko ordain ez-erlatiboekin ordezkatu dituela ikusi dugu. Baina nola erlatibatu ditu mantenduriko PE ez-murrizgarriak, ZEIN/NON/BAIT- erlatiboak gutxitan erabili baditu? Hemen dago erantzuna:

Taula 30 Ez-murrizgarriak ez-murrizgarriekin itzultzean erabilitako PEak (EUS)

E. E. M → E. E. M.	Guztira
-N erlatibo arruntak	2
Erlatibo aposatuak (-N erlatibo aposatuak, -N erlatibodun aposizioak, erlatibo jokatuagabe aposatuak)	16
ZEIN erlatiboa	6
NON erlatiboa	1
BAIT- erlatiboa	7

Mataukoren baliabide ohikoa zera da, zentzu ez-murrizgarri edo esplikatiboa lortzea izen ardatzaren ostean aposatuz erlatiboa, gehienetan -N erlatibo aposatuen bidez (1 eta 2) eta batzuetan egitura bereko erlatibo jokatuagabe aposatuen bidez (3).

Taula 31 -N erlatibo aposatuena eta erlatibo jokatuagabe aposatuena bidezko PE ez-murrizgarriak

(1) Wir schlendern die Altstadt hinunter, die immer noch hergerichtet aussieht , immer noch wie ein musealer Erlebnispark, immer noch auf kiffende, englischsprachige Rucksacktouristen ausgerichtet,... (Zelik 2007: 283)	Kalez kale gabiltza alde zaharrea behera, betiere moldatua ematen duena , betiere museo antzeko erakustoki bat bezala, betiere motxiladun turista ingeles-hiztun kif zaleak lerroan,... (Zelik 2009: 127)
(2) ...die Spuren zweier Spaziergänger, die sich in Schlangenlinien auf jenem schmalen Streifen Strand zu halten versucht haben ,... (Zelik 2007: 127-128)	bi ibiltariren oinatzak, sigi-saga hondartza zerrenda estu hartan gelditzen saiatu direnak : (Zelik 2009: 58)
(3) ...eigneten sich die marginale Sprache wieder an, die von den Großeltern zu Hause noch geredet wurde . (Zelik 2007: 35)	...berrito berenganatu zuten bazter hizkuntza, aitona-amonek oraindik etxean hitz egina baina landugabe eta larrekotzat joa ; (Zelik 2009: 16)

Bestalde, esaldi oso bati erreferentzia egiten dioten -N erlatibo aposatu ez-murrizgarrien erabilera ere ikusi dugu, aditu batzuek zuzena ez dela uste duten arren:

Politikaz hitz egiten genuenetan, garai hartan saihestezina zena, eta Nikaraguako iraultzaz eztabaidatzean,... (Zelik 2009: 11)

Hortaz, -N erlatibo aposatuak eta erlatibo aposatuak oro har, murrizgarritzat hartuko lituzkete askok, -N erlatibo arruntetik datozelako. Haatik, corpusak erakusten du oro aposatuak ez-murrizgarriak ere txertatzeko baliabie ohikoa direla, eta testuinguruak ez duela ahalbidetzen irakurleak esanahi murrizgarria jasotzea. Ez bakarrik izen ardatza jada identifikatua eta mugatua dagoenetan —*alde zaharra* (1) eta *bazter hizkuntza* (3) bat eta bakarra dira—, baita hala ez den kasuetan ere (2).

5.3.2. Anbiguotasuna

Eta, azkenik, alemanezko PE batzuek izan dezaketen anbiguotasunean zentratuko gara, gure corpusean atzeman baititugu bakan batzuk (14). Horien aurrean itzultzaileak

interpretazioetako bati eutsi eta izaera murrizgarri edo ez-murrizgarria eman die orokorrean, baina kasu batzuetan ordain ez-erlatiboekin ordezkatu ditu. Honako taula honek biltzen du 14 perpau horiekin gertatu dena:

Taula 32 Jatorrizko PE anbiguoen itzulpena

Anbiguoak	EUS	ES
Anbigua → E. M.	5	4
Anbigua → E. E. M.	5	10
Anbigua → erlatiborik ez	4	0

Jarraian datorrena alemanezko esaldi anbiguoak azaltzeko erabiltzen den perpauaren oso antzekoa da. Kasu honetan, perpau murrizgarria sortzea erabaki du bi XHetan:

Taula 33 PE anbiguoen itzulpena: XHetan PEa murrizgarri bihurtzea

Ein Junge, der neben der Parkbank spielt , erzählt, dass er im Winter mit zwei anderen Kindern allein in der Ortschaft sei. (Zelik 2007: 37)	Parkeko bankuaren ondoan jolasten ari den mutil batek dio neguan beste bi hurrekin bakarrik egoten dela herrixkan. (Zelik 2009: 17)	Un chaval que está jugando junto al banco del parque nos explica que en invierno está solo en el pueblo con otros dos niños. (Zelik 2010: 21)
---	--	--

Hurrengo taulako adibidean euskaraz ordain ez-erlatiboa hautatu du, eta gaztelaniaz, PE ez-murrizgarria.

Taula 34 PE anbiguoen itzulpena: ordain ez-erlatiboa (eus) eta erlatibo ez-murrizgarria (es)

Backpacker, die sich für Aussteiger halten , aber in Wirklichkeit nur als neoliberale Vorhut des Pauschalismus unterwegs sind. (Zelik 2007: 12)	Motxileroak, progreustekoak , baina egiaz agentziaturismoaren aurrendari talde neoliberalak baino ez dituk. (Zelik 2009: 6)	Mochileros, que se creen progres , pero que en realidad no son otra cosa que la avanzadilla neoliberal del turismo organizado (Zelik 2010: 6-7)
--	--	--

6. ONDORIOAK

Buruturiko analisi sintaktiko-semantikoak, lehenik eta behin, frogatu du *Lagun armatua* itzulpenean, itzultzaileak euskaraz erlatibatzeke joera nahiko altua izan duela, hots, jatorriz euskaraz idatziriko testuetan erabili ohi dena baino altuagoa eta itzulpenetan orokorrean izaten denaren antzekoa. Hori, noski, Bigurik ezberdinduriko bi kanon erlatiboen baitan kokatzen da, itzulpenetako erlatibazio-tasa altuagoa baita oro har. Euskarazko erlatibakuntza % 71,2koa izan da XTan, eta ordain ez-erlatiboen kopurua, hortaz, % 28,8koa. Sanchoren datuak ere antzekoak direnez (% 68 vs. % 32), esan genezake euskarazko itzulpen honen erlatibakuntza-tasa itzulpen baterako ohikoa dela. Gaztelaniaz erlatibazioa nabarmen altuagoa izan dela ikusi dugu (% 89,9), berez hizkuntza erromaniko horrek daukan karga erlatibo altuagatik, zeina Biguriren corpusak jada ondorioztatu zuen, eta alemana eta gaztelaniak dauzkaten erlatibatzaile antzekoengatik, zeinek testuinguru morfologikoan erabilera berdina ez baituten arren, egitura berdinen erabilera baitakarten.

Bigarrenik, Matauko itzultzaileak ZEIN/NON erlatiboekiko mesfidantza izan duela esan genezake, oso gutxitan egin baitu horiek erabiltzeko hautua. Horrek are gehiago indartzen du Bigurik bere tesian (2016) aipatzen duena: XX. mende hasierako garbizalekeriaren eta *antizeiñismoaren* ondorioz, idazle eta itzultzaile askoren artean ZEIN/NON erlatiboen aurkako jarrerak dirau —kotzienteki zein inkontzienteki—, eta egozten zaien erdal jatorria aitzakiatzat hartuta euskal literaturan izan duen tradizio luzeari muzin egiten zaio, baita erlatibo mota horren oparotasunari ere. Harritzekoa da ZEIN/NON erlatiboek josten duten itzulpen-kanon estilistikoa, Bigurik sortze-kanon horren paralelotzat identifikatzen duena, ez dela gure corpusean gertatu, itzulpenek oro har duten ZEIN/NON karga handiagoa ez delako gure corpusean hauteman.

Hirugarrenik, ZEIN/NON erlatiboak asko ez erabiltzeagatik, ikusi dugu -N erlatibo arruntak eta erlatibo aposatuak (forma guztietan: -N erlatibo aposatuak, -N erlatibodun aposizioak, gibeleratuak eta erlatibo jokatuagabe aposatua) erabiltzeko joera izan duela bereziki. Aposatuen erabilera, gainera, Sanchok atzeman zuena baino askoz ere handiagoa dela ikusi dugu eta, hortaz, izen ardatzaren eskuinean kokatzen diren perpaus erlatiboen kopurua handia dela esan genezake. Horregatik, erlatibo aposatuen kopuru altua itzultzailearen ezaugarri estilistikotzat hartu dugu, jatorrizko informazio-hurrenkera mantentzeko ahaleginaren isla direlako, eta perpaus ez-murrizgarriak emateko bere itzulbide

nagusia. Halako aposatuak (-N erlatibo arruntetik abiatuak barne) aditu batzuek zuzentzat joko ez lituzketen eran erabili ditu batzuetan, hots, zalantza edo anbiguotasunik gabeko izaera ez-murrizgarria emateko. Gure corpusak, zentzu horretan, erlatibo aposatuek funtzio ez-murrizgarria izan dezaketela frogatzen du, teoriaren ingurumarietatik haratago, itzulpena bezalako testuinguru erreal batean erabili direlako eta jatorrizko zentzu ez-murrizgarria transmititu dutelako. Aposatuen eta izaera ez-murrizgarriaren arteko loturaren inguruan ikerketa sakonagoa egin behar dela aitortzen dugu, hala ere.

Laugarrenik, ordain ez-erlatiboek dagokienez, euskaraz maiz jo du baliabide horietara, eta gehienbat egitura paraktikoetara, hipotaxiaren eta sinplifikatzearen gainetik. Erabilera horren atzean, batetik, euskarak inguruko atzerriko hizkuntzekin alderatuta duen erlatikauntza-tasa baxuagoa dugu; bigarrenik, ZEIN erlatiboak ez erabiltzeko nahia; eta, hirugarrenik, ez-murrizgarriek duten kanpo-izaera; ez-murrizgarrien kanpo-izaerak bai semantikoki bai fonologikoki perpaus nagusitik urruntzen dituzenez, horrek erlatibazioa marra luzeekin eta alborakuntzarekin ordezkatzeko ahalbidetzen du. Gaztelaniaz, ordea, ordain ez-erlatiboak gutxitan erabili ditu, eta sinplifikatzearen alde egin du, gainera.

Bosgarrenik, aspektu semantikoari heldurik, ikusi dugu, euskaraz, jatorrizko erlatibo ez-murrizgarriak ordain ez-erlatiboekin ordezkatzeko joera handiagoa dela bai murrizgarriekin alderatuta bai gaztelaniarekin alderatuta. Ez-murrizgarriak askotan ordain ez-erlatiboekin ordezkatzeko ZEIN/NON erlatiboekin erabilera baxuarekin lotu behar dugu. Gainera, kontuan hartzekoa da ezabatzeaz gain, batzuetan, nahiago izan duela murrizgarri bihurtzea edota modulazioaren bidez eraldatzea; hori, noski, gaztelaniara ere lerratu da batzuetan. Gaztelania bezalako hizkuntza normalizatuak PE murrizgarri eta ez-murrizgarriak sortzeko era normalizatu izanagatik, ikusi dugu ez-murrizgarriak ordain ez-erlatiboekin itzultzeko joera handiagoa dela murrizgarriekin baino. Hori, noski, alemana-gaztelania corpus handiago batekin erkatu beharko litzateke, ondorioztatzeko Mataukoren hautu pertsonalen ondorioa izan den ala oro har gaztelaniarako itzulpenetan ikus dezakegun fenomeno den. Halaber, ikusi dugu murrizgarrien eta ez-murrizgarrien arteko bereizketa ortografikoa ez dela beti argia gaztelanian, identifikatu baititugu koma ez erabili arren ez-murrizgarriak direnak. Euskaraz, aldi berean, -N erlatibo arruntak ere ez-murrizgarritasunerako giltza izan daitezkeela ikusi dugu. -N erlatibo arruntan erabilera ez-murrizgarriaren inguruko ikerketa gehiago behar dira, halere. Eta, semantikarekin bukatzeko, jatorrizkoan bereizketa dual

horretan sartzen ez diren esaldi anbiguen aurrean bata ala bestea aukeratzeko hautua egin duela ikusi dugu, kontzienteki edo inkontzienteki.

Hortaz, euskarak, zubi-hizkuntza izanik, oro har eragin txikia izan duela ikusi dugu erlatibakuntzan orokorrean eta ez-erlatibakuntzan zehazki. Gaztelaniaren izaera ez-gutxitu eta normalizatuaren ondorioz, haren kanon estilistiko-sintaktikoa finkatua dago literaturan eta itzultzaileen gogoetan; hartaz, euskaratik pasa arren eta hainbat egitura imitazioz sortu dituen arren bigarren xede-hizkuntzan, bi karga erlatiboak ezberdindu ditu itzultzaileak; oro har hizkuntza bakoitzean modu ezberdin batean aritu da, alegia. Hala eta guztiz ere, maila sintaktikoa alde batera utzirik, lerradura semantikoa gertatu dela ikusi dugu, jatorrizkoan ez-murrizgarriak ziren perpaus batzuk murrizgarri bihurtu zituelako euskaraz eta, ondorioz, baita gaztelaniaz ere.

Bukatzeko, buruturiko azterketa sintaktiko-semantikoak, trinomio gutxiko corpusa izanagatik oinarrian, itzultzaile berak alemana-euskara eta alemana-gaztelania itzulpen-norabidean izandako joera espezifikoa zein den ikusteko balio izan du. Azterketa puntu askotan sakondu eta hobetu daitekeen arren, eta murrizgarri eta ez-murrizgarrien bereizketaren eta interpretazioaren inguruko ikerketan lan handia dagoen arren egiteke, perpaus erlatiboen garrantzi sintaktiko, semantiko eta estilistikoa ikusarazteko baliagarria izan dela uste dugu. Gainera, beste itzulpen-testuinguruetarako ere erabil liteke, ikergai konplexu, korapilatsu eta polemiko honen bidean argibiderantz hurbiltzen joateko.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aletá, E. (1990). *Estudios sobre las oraciones de relativo*. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza.
- Biguri, K. (1994). «Erdarazko elatiboen itzulpenaz» in *Senez* 15: 37-71.
<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/19940901/biguri>. Azken kontsulta data: 2019-04-23.
- (2016): *Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenaren estilista konparatu baterako materialak: perpaus erlatibo esplikatiboak euskaratik gaztelaniara eginiko literatura-itzulpenetan*. D.t. argitaragabea.
- Capitán Swing (2019). «Raul Zelik». <https://capitanswing.com/autores/zelik-raul/>. Azken kontsulta data: 2019-5-26.
- Castell, A. (2002). *Gramática de la lengua alemana*. 4. ed. Madril: Editorial Idiomas.
- Engel, U. (1994). *Syntax der deutschen Gegenwartssprache*. Berlin: Erich Schmidt.
- (2004). *Deutsche Grammatik*. Munich: Iudicium.
- Eroms, H. W. (2000). *Syntax der deutschen Sprache*. Berlin/New York: Walter de Gruyter.
- Euskaltzaindia (1999). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak V (Mendeko perpausak-1: osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Garzia, J. (1997). *Joskera lantegi*. Oñati: HAEE-IVAP.
- Hurtado, A. (2001). *Traducción y traductología. Introducción a la traductología*. Madrid: Cátedra.
- Institut für Deutsche Sprache (1997). *Grammatik der deutschen Sprache*. Vol. III. Berlin/New York: Walter de Gruyter.
- Mikame, H. (1998). «Relativsätze aus textpragmatischer Sicht» in Donhauser K. eta Eichinger L.M. (ed.). *Deutsche Grammatik – Thema in Variationen*. Heidelberg: Universitätsverlag. 101-119.

- Nor da Nor (2014). «Edorta Gonzalez de Matauko Elorza». <http://nordanor.eus/nor?id=270>.
Azken kontsulta data: 2019-5-25.
- Real Academia Española (2009). *Nueva gramática de la lengua española*. Madrid: Espasa.
- Pittner, K. eta Berman, J. (2007). *Deutsche Syntax: Ein Arbeitsbuch*. 2. ed. Tübingen:
Gunter Narr.
- Sancho, I. (2015). *Errusierazko perpaus erlatiboen euskaratzea. Hizkuntza-sistematik
itzultzailearen estilora*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Villasante, L. (1976). *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñati: Ed. Franciscana Aránzazu.
- Zelik, R. (2019). «Biographie». <https://www.raulzelik.net/biographie-vita-lebenslauf>.
Azken kontsulta data: 2019-5-26.
- (2007). *Der bewaffnete Freund*. Berlin: Blumenbar Verlag.
 - (2009). *Lagun armatua*. (Edorta Mataukok itzulia). Tafalla: Txalaparta.
 - (2010). *El amigo armado*. (Edorta Mataukok itzulia). Tafalla: Txalaparta.

I. ERANSKINA: AZTERKETA SINTAKTIKO ETA SEMANTIKOA

JT (DE)	XT (EUS)	XT (ES)	DE	EUS	ES	DE	EUS	ES
Die Zeitung, die wir an der Tankstelle gekauft haben. (9)	Gasolindegian erosi dugun egunkaria (5)	El periódico que hemos comprado en la gasolinera... (5)	E. A.: izenordaina	N erlatibo arrunta	Erlatiboa: izenordaina	E. M.	E. M. --> E. M.	E. M. --> E. M.
Wir fahren von der Nationalstraße N-340 ab, die wie eine schlecht gebaute Autobahn aussieht... (9)	Gaizki egindako autobide baten itxura duen errepide batetik barna goaz, N-340 errepide nazionaletik barna; (5)	Salimos de la carretera nacional N-340, que parece una autopista mal construida; (5)	E. A.: izenordaina	N erlatibodun apozioa	Erlatiboa: izenordaina	E. E. M.	E. E. M. --> E. M.	E. E. M. --> E. E. M.
...lassen den Wagen stehen und gehen hinunter ans Meer, gelangen an einen schmalen Streifen zwischen Asphalt und Wasser, der noch nicht mit Apartmentsiedlungen bebaut ist. (9)	...autoa utzi eta itsasaldera jo dugu, apartamentu-koloniak oraindik eraiki gabe dituen lur-zerrenda estu bateraino uraren eta asfaltoaren artean. (5)	...y, en dirección al mar, llegamos a una estrecha franja entre el asfalto y el agua, donde aún no han construido colonias de apartamentos. (5)	E. A.: izenordaina	N erlatibo arrunta	Erlatiboa: adberbioa	E. E. M.	E. E. M. --> E. M.	E. E. M. --> E. E. M.
das gleiche beglückte Gesicht wie die Millionen Touristen und Pensionäre, die die Region längst in Besitz genommen haben. (9)	...zorionezko aurpegiera jarri du, eskualdea aspalditik okupatua duten milioika turista eta pentsiodunena bezalakoak. (5)	Pone la misma cara de felicidad que los millones de turistas y pensionistas que hacen tiempo tomaron posesión de la región. (5)	E. A.: izenordaina	N erlatibodun apozioa	Erlatiboa: izenordaina	E. M.	E. M. --> E. M.	E. M. --> E. M.

Der Helikopter, mit dessen Hilfe nach boat people gesucht wird, (...) verschwindet in Richtung Südwesten. (10)	Helikopteroa — boat people ari da bilatzen, (...) hegomendebalderantz desagertu da. (5)	El helicóptero, con cuya ayuda buscan a los boat people, desaparece en dirección suroeste. (6)	E. A.: preposiziodun edutezko determinatzailea	Erlatiborik ez: parataxia: marra luzeak	Erlatiboa: preposiziodun edutezkoa	E. E. M.	E. E. M. --> erlatiborik ez	E. E. M. --> E. E. M.
...nach illegalen Einwanderern, die man von der Küste fernzuhalten versucht, verschwindet in Richtung Südwesten. (10)	... kostatik urrun mantentzen saiatzen diren legez kanpoko etorkinak— hegomendebalerantz desagertu da. (5)	...inmigrantes ilegales que intentan mantenerse alejados de la costa, desaparece en dirección suroeste. (6)	E. A.: izenordaina	N erlatibo arrunta	Erlatiboa: izenordaina	E. M.	E. M. --> E. M.	E. M. --> E. M.
